

**PIO BAROJA B.H.I.aren ANTOLAKUNTZA ETA
JARDUERA ARAUDIA
(2010-2011 IKASTURTEAN ONARTUA eta
24-25 ikasturtean berrikusia)**

AURKIBIDEA

ATARIKO IDAZPURUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. PIO BAROJA BHIaren izena, irakaskuntzak eta izaera

I. IDAZPURUA: PIO BAROJA BHIaren ANTOLAKUNTZA

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Aginte organoak

3. artikulua. Hezkuntza kidegoaren parte hartzea

4. artikulua. Didaktika koordinatzeko organoak

5. artikulua. Gobernuaren, parte hartzearen eta koordinaketa didaktikorako organoen jarduera-oinarriak

II. KAPITULUA: KIDE ANITZEKO GOBERNU ORGANOA

1. ATALA: PIO BAROJA BHIko OOGa

6. artikulua. OOGaren osaera eta izaera

7. artikulua. OOGaren aukeraketa eta berrikuntza. Horretarako behar diren agiriak PR0104an daude

8. artikulua. Bilera-buruaren eta idazkariaren ordezkapena

9. artikulua. OOGaren funtzionamendu- arautegia

10. artikulua. OOGko batzordeak

2. ATALA: IRAKASLEEN KLAUSTROA

11. artikulua. Irakasleen klaustroaren izaera eta osaera

12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu- arautegia

13. artikulua. Klaustroaren eskumenak Irakasleen klaustroari EEPLko 35.artikuluak eta indarrean diren gainerako xedapenek zehaztutako egitekoak betetzea dagokio

3. ATALA: ZUZENDARITZA

14. artikulua. Zuzendaritza

III. KAPITULUA: KIDE BAKARREKO GOBERNU ORGANOA

15. artikulua. Zuzendaria

16. artikulua. Ikasketa-burua

17. artikulua. Idazkaria

18. artikulua. Kide bakarreko gobernu organoak izendatzeko edo kargugabetzeko proposamenak

19. artikulua. Zuzendaritzako kideen ordezkapena

IV. KAPITULUA: IRAKASKUNTZA KOORDINAZIORAKO ORGANOA

20. artikulua. PIO BAROJA BHIko koordinaziorako organoak

1. ATALA. ORIENTAZIO MINTEGIA

21. artikulua. Orientazio mintegiaren osaera

22. artikulua. Orientazio mintegiaren egitekoak

23. artikulua. Orientazio mintegi buruaren izendapena

2. ATALA: DEPARTAMENTU DIDAKTIKOAK

24. artikulua. Departamentu didaktikoen izaera eta osaera

25. artikulua. Departamentu didaktikoen eta departamentu-buruen egiteko eta eskumenak.

26. artikulua. Hauxe da PIO BAROJA BHIko departamentu didaktikoen kopurua eta zerrenda, ikasturte-antolamenduaren ebazpenaren arabera:

27. artikulua. Departamentu didaktikotako buruen izendapena

3. ATALA: PEDAGOGIAREN KOORDINAZIORAKO BATZORDEA

28. artikulua. Pedagogiaren koordinaziorako batzordearen osaera

29. artikulua. Pedagogiaren koordinaziorako batzordea

4. ATALA: TUTOREAK ETA GELAREN IRAKASLE-TALDEAK

30. artikulua. Tutoretza eta tutoreen izendapena

31. artikulua. Tutoreen egitekoak

32. artikulua. Gelaren irakaskuntza-taldearen osaera eta araubidea

33. artikulua. Gelaren irakaskuntza-taldearen egitekoak

V. KAPITULUA: PARTE HARTZEKO BERARIAZKO ORGANOAK

34. artikulua. Parte hartzeko berariazko organoak

1. ATALA: IKASLERIAREN PARTE HARTEKO BERARIAZKO ORGANOAK

35. artikulua. Ikasleek PIO BHIan parte hartzeko berariazko organoak dira gela- eta maila-ordezkariek eta ordezkarien batzarra.

36. artikulua. Gelako ordezkariak

37. artikulua. Ordezkarien egitekoak

38. artikulua. Ordezkarien batzarraren osaera eta funtzionamendua

39. artikulua. Ordezkarien Batzarraren egitekoak

2. ATALA: IKASTEGIAN LEGEZ ERATUTAKO ELKARTEAK

40. artikulua. Ikasleen familia eta tutore elkarteak

41. artikulua. Legez osatutako elkarteetan parte hartzea

II. IDAZPURUA: ELKARBIZITZARAKO ARAUDIA

I. KAPITULUA. OINARRI OROKORRAK

42. artikulua. Elkarbizitzaren oinarria

43. artikulua. Elkarbizitzarako plana

44. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

45. artikulua. Betebeharrak beteko diren bermea

II. KAPITULUA: IKASLEEN ESKUBIDEAK ERABILTZEKO BERMEA

46. Artikulua. Irakasleen parte hartzea ikasleen eskubideen alde

47. artikulua. Segurtasunarekin loturiko eskubideen arreta

48. artikulua. Ohorearen, intimitatearen eta irudi propioaren babesa

49. artikulua. Biltzeko eskubidea

50. artikulua. Taldean eginiko hutsegiteen arauketa. Horri buruzko dokumentazioa hemen: PR0104 eta NM020102

51. artikulua. Adierazpen-askatasunerako eskubidearen idatzizko erabilera

III. KAPITULUA. EGINBEHARRAK BETETZEAREN BERMEA

52. artikulua. Oinarri orokorra

53. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak .

54. artikulua. Jokabide desagokiak

55. artikulua. Jokabide desagokiak hezkuntza-neurri zuzentzaileak eta beste ondorio batzuk

56. artikulua. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak

57. artikulua. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak zuzentzeko prozedura

58. artikulua. Elkarbizitzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak

59. artikulua. Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideen zuzenketa

60. artikulua. Ikasgaiz aldatzeko proposamena

61. artikulua. Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna behin eta berriroko bertaratze-hutsengatik

62. artikulua. Oinarritzko gaitasun sozial eta herritarra ebaluatzearen ondorioak

63. artikulua. Izan daitezkeen kalteengatik erantzukizuna

64. artikulua. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak

IV. KAPITULUA. JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

65. artikulua. Xedapen orokorrak

66. artikulua. Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak

67. artikulua. Adiskidetzea gertatu delako prozedura bertan behera uztea

68. artikulua. Kaltea konpondu delako prozedura bertan behera uztea

69. artikulua. Jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik prozedura bertan behera uztea

70. artikulua. Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea

71. artikulua. Elkarbizitzarako konpromiso hezigarriak

V. KAPITULUA: NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

XEDAPEN OROKORRAK

72. Artikulua. Elkarbizitzaren aurkako eta elkarbizitzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko

73. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna

74. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedura-epeak

75. artikulua. Denbora igaro delako prozedurei ekiteko debekua

76. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea

78. artikulua. Dekretu honetan arautu diren prozeduretako datu pertsonalak lantzeko, babesteko eta ezeztatzeko

79. artikulua. Erreklamazioak eta helegiteak

III. IDAZPURUA: ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

80. artikulua. Oinarri orokorrak

81. artikulua. Publikotasuna

82. artikulua. Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa

83. artikulua. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

84. Artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

85. artikulua. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa (ikus 7. Eranskina)

86. artikulua. Azken ebaluazioan eragina izango duten proba eta ariketa guztiak ikusteko prozedura.

IES PIO BAROJA BHiko AJAtik ERATORRI ETA ERABILERA ETENGABEA DUTEN ZENBAIT GEHIGARRI

[1go Eranskina](#) Arau orokorrak (laburpena). NM020102

[2. eranskina](#): Hutsegiteen eta gelatik kanporatzeen kudeaketa. DC020506

[3. eranskina](#): Eskolaz kanporako irteeratako arautegia. NM020301

[4. eranskina](#): Azterketetako protokoloa. NM010404

[5. eranskina](#): Tresna elektronikoei buruzko protokoloa. NM020105

[6. eranskina](#): Osasuna eta arriskuen-prebentziorako protokoloak. NM060901

[7. eranskina](#): Berrikusketa eta erreklamazio prozesua

[8. eranskina](#): Promozio eta titulazio irizpideak

[9. eranskina](#): Hainbat protokolo.

[10. eranskina](#): Ohorezko matrikulak. Berdinketa hausteko irizpideak.

[11. eranskina](#): Barmeazio kasuan OOG-ko desentate irizpidea.

ATARIKO IDAZBURUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. PIO BAROJA BHIaren izena, irakaskuntzak eta izaera

1. PIO BAROJA BHIa ikastegi publikoa da, eguneko eta gaueko batxilergo ikasketak ematen dituen, ikastegiaren jabetza duen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, urtez urte, eginiko plangintzaren arabera.

2. Euskal Eskola Publikoaren Legeko (aurrerantzean EEPL) 3.1. artikulua arabera PIO BAROJA BHIa ikastegia askotariko, elebidun, demokratiko, euskal gizartearen zerbitzuko, eskualdeko gizartean eta kulturaren erroturiko, partaidetzaren eragile, desberdintasunen osatzaile eta aniztasunean bateratzaile, apolitiko zein akonfesional moduan definitzen da legez.

3. PIO BAROJA BHIak Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3. 2. artikulua ezarrita dauzkan helburuak bere egiten ditu. Eskolako gobernu organoek, parte hartzekoek eta didaktika koordinazio didaktikokoek bai eta irakasleek eta irakasle ez diren langileek ere euren egiteko guztia helburu horien alde bideratuko dute.

4. PIO BAROJA BHIak bere eskubideak arduratsuki erabiltzea onartzearekin batera, besteenak ere errespetatzea onartzen du, hala egitea ikastegiko bizikidetzaren oinarria dela iritzita.

I. IDAZPURUA: PIO BAROJA BHIaren ANTOLAKUNTZA

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Aginte organoak

1. PIO BAROJA BHIak Euskal Eskola Publikoaren Legean aurreikusten diren kide anitzeko zein bakarreko gobernu-organoak izango ditu, lege berak finkatutako ahalmen eta gaitasunekin.

a) Kide anitzekoak: Ordezkaritza Organo Gorena, irakasleen klaustroa eta zuzendaritza.

b) Kide bakarrekoak: zuzendaria, ikasketa-burua eta idazkaria.

2. Ikasturte bakoitzeko ikasle kopuruaren eta, ikasturtearen eraketaz, urteroko Antolakuntza- Ebazpenak dioenaren arabera, PIO BAROJA BHIak bakarkako beste arduradun hauek ere izango ditu, Ebazpenak berak eta goragoko atalean aipatutako organoek haien esku uzten dituzten eskumen eta esleipenekin:

a) Zuzendariordea eta idazkariordea

b) Gaueko ikasketa-burua

3. artikulua. Hezkuntza-kidegoaren parte hartzea

1. Irakasleek, haien familieek, irakasleek, administrazio eta zerbitzu eta udaleko kideek PIO BAROJA BHIko gobernuan Ordezkaritza Organo Gorenaren bidez hartuko dute parte.

2. PIO BAROJA BHIko jardueretan parte hartzeko organoak izango dira, gainera, Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera, gurasoen elkarteak eta irakasle horretarako izango duten erakundea.

3. PIO BAROJA BHIa bera izango dute egoitza legez erabakitako ikasleek eta gurasoen elkarteek, eta, beren jarduerarako behar dituzten lekuak utziko dizkie ikastegiak eta, era berean, haiek eskolaren bizi martxan parte hartzea bultzatuko du hezkuntza-, kultura- eta kirol-alarretako jarduerak hauspotuz.

4. artikulua. Didaktika koordinatzeko organoak

PIO BAROJA BHIko didaktika-alarra, klaustroaren buruzagitza pean, honako organo hauek osatuko dute: didaktika eta orientazio mintegiek, tutoretzek eta gela bakoitzaren irakasle-taldeak.

5. artikulua. Gobernuaren, parte hartzearen eta koordinaketa didaktikorako organoen jardura oinarriak

1. Ikastegiaren gobernurako, parte hartzeko eta koordinaketa didaktikorako organoek begiratuko dute eskolako jarduerak EEPLak jasotzen dituen oinarrien eta balioen arabera betetzen direla, lege horretan eta gainerako xedapenetan araututako helburuak benetan lortzen direla, eta irakaskuntzaren kalitatea ere zaintzen dela.

2. Gainera, ikastegiko gobernu, parte hartze eta koordinaketa didaktikorako organoek, zeinek bere eremuan, bermatuko dute ikasleei, irakasleei, ikasleen familiei eta administrazioari eta zerbitzuetako langileei aitortutako eskubideak eta eginbeharrak bete egiten direla.

3. Era berean, eskola-elkarteko kide guztiek ikastegiaren bizi-martxan, kudeaketan eta ebaluazioan eraginkorki parte har dezatela zainduko du.

II. KAPITULUA: KIDE ANITZEKO GOBERNU ORGANOA

1. ATALA: PIO BAROJA BHIko OOGa

6. artikulua. OOGaren osaketa eta izaera

1. PIO BAROJA BHIko OOG da eskola elkarteko kideek ikastegiaren gobernuan parte hartzeko erakundea.

2. OOGren eskumenak: PIO BAROJA BHIko OOGk EEPLko 31. artikulua aitortzen dizkion eskumenak ditu.

3. PIO BAROJA BHIko OOGa honako kide hauek (EEPL, 32. 2.) osatuko dute:

a) Zuzendariak eta, aldi berean, bilera-buru ere izango denak.

b) Ikasketa-buruak.

c) Hamar irakasle, klaustroak hautaturik.

d) Ikasleen familien sei ordezkari, eurentako bat legezko izaera duten elkarleen arteko jendetsuenak izendatua izan daitekeelarik.

e) Ikasleen arteko bederatzi ordezkari.

f) Administrazio eta zerbitzuetako langileen arteko ordezkari batek.

g) Eskolako idazkariak, OOGaren idazkari ere izango denak, hitza bai baina botorik gabe.

h) Irungo udalaren ordezkaria edo zinegotzi batek.

7. artikulua. OOGaren aukeraketa eta berrikuntza. Horretako behar diren agiriak PR0104an daude.

1. Lau urtez behin izango dira hauteskunde orokorrak, deialdi ofizialarekin batera. Irakasleek aukeratutako hautagaiak lau urtez arituko dira jardunean, hurrengo deialdira arte, alegia.

2. Lau urteko tarte horretan, OOGaren zatikako berritzeak egingo dira, urtero-urtero, ikasleen eta haien familien artean eta, berritze horien bidez, ordezkarien artean sortutako hutsak beteko dira, alegia, aurreko berritze-aldian ordezkari moduan hautatutakoek utzitako hutsuneak. Tarteko deialdi horietan aukeratutako agintaldiak hurrengo hauteskunde orokorrak arte iraungo du, salbu eta hautatuen eta ikastegiaren arteko harremana bertan behera geratzen den.

3. Boto kopuruan berdinketa izanez gero hautagaien hurrenkera alfabetikoari erreparatuta ebatziko da auzia.

8. artikulua. Bilera-buruaren eta idazkariaren ordezkapena

1. Zuzendariak huts egiten badu, zuzendariordeari dagokio OOGaren bilera- buru izatea. Zuzendariorderik ez badago egiteko hori ikasketaburuak hartuko du bere gain, eta hark ere ezingo balu, ikastegian denbora luzeen daraman irakaslea izango da bilera buru.

2. Idazkariak huts egiten badu, eta idazkariorderik ez badago, haren egitekoa irakasleen artean denbora laburren daramanak hartuko du bere gain.

9. artikulua. OOGaren funtzionamendu- arautegia

1. OOGaren bilerak kide guztiak bertaratzeko moduko orduan eta egunean egingo dira. Bilera arrunterako deialdian (MDO10410)

zuzendariak OOGko kideei bilerako gaien zerrenda eta, eztabaidagai eta, agian, onartuak izango diren agiri guztiak bidaliko dizkie bilera eguna baino astebete lehenago.

2. Aparteko deialdiak ere egin ahal izango dira, berrogeita zortzi orduko aurrerapenez, betiere, aztertu beharreko gaiak premiazkoak edo halabeharrezkoak badira.

3. OOGa hiruhilean behin bilduko da, gutxienez, bai eta ikastegiko zuzendariak deialdia egiten duenean, edota kideen arteko herenak hala eskatzen duenean. Edonola ere, ikasturte hasiera- amaiera guztietan bilduko da. Kideek OOGaren bilerara joatea nahitaezkoa izango dute.

4. OOGak gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak, jarraian zehazten diren kasuetan izan ezik:

a) Ikastegiaren Hezkuntza-proiektua, Urteko plana eta AJA onartzeko, bai eta horien aldaketak egiteko ere; kasu horietan gehiengo osoa beharko baita.

b) Zuzendariaren izendapena baliogabetzeko, OOGko kideen arteko bi herenen gehiengoa beharko baita.

5. Araudi honek edo hezkuntzako legeek aurreikusi gabeko gaitan OOGaren jardura Administrazio-prozedurako Legearen II. atarikoan 2. kapituluak dioenari atxikiko zaio.

10. artikulua. OOGko batzordeak

1. OOGak batzorde iraunkor bat eratuko du EEPLko 36. 3. artikuluan adierazitako egitekoak betetzeko bai eta osoko bilkurak ebatzitako beste edozeinetarako ere. Batzorde iraunkorra zuzendariak, ikasketa-buruak, eta eskola-elkartearen saihesten bakoitzeko bi irakasle, familien ordezkarietako bi kidek eta bi ikasle osatua egongo da. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, boto ponderatua erabiliz.

2. OOGak osaera berarekin eta botoa emateko era ponderatu berarekin eratuko du elkarbizitza batzordea, jardura egokiak baliatuz, elkarbizitzako giroa indartzeko eta giro horren aurkako portaerei eta larriki kaltetzen dutenei ezarri beharreko neurri zuzentzaileak ezagutarazteko, aplikatzeko eta berrikusteko.

3. Era berean, batzorde ekonomiko bat ere eratuko du irakasle batek, eta familien eta ikasleen ordezkari banak eta ikastegiko idazkariak buru duela osatua, batzordeari dagozkion gorabehera ekonomikoez OOGari argibideak emango dizkiona.

4. Segurtasun- eta higieen-batzordea ere eratuko du, irakasle batek, familien eta ikasleen ordezkari banak, ikastegiko idazkariak, eta ikasketa-buruak osatua, ikasketa-burua arduradun duena eta (batzordeari) dagozkion gorabeheretan OOGari argibideak emango dizkiona. (Batzordeari dagokio Larrialditarako Egitasmo Orokorrean laguntza ematea bai ezbeharrak aurreikusteko, bai ebakuazio-itxuren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta bai ikastegiko oin-egituraren, mobiliarioaren edo instalakuntzetan harrapatutako hutsen berri OOGari emateko, huts horiek legeen arabera konpondu ahal izateko).

5. OOGak bestelako batzorderik ere antolatu ahal izango du unean uneko premiei erantzuteko eta antolaketa bertan erabakitako eran eta eskumenekin. Batzorde horiek guztiek, artikulua honetako hiru ataletan aipatuak barne, dagozkien gaietan, azterketak, txostenak eta proposamenak egin ahal izango dituzte. Erabakiak hartzeko, artikulua honetako 1. eta 2. ataletan aipatzen diren gaietan ez beste guztietan, legearen arabera, berariazko batzorde bat eratzea nahitaezkoa izango da. Batzorde horren osaketa OOGa berarenaren proportziokoa izango da, batzorde iraunkorrarena edota elkarbizitzarena den bezalaxe, eta gehiengo soila baino behar ez duten erabakiak hartzea batzorde horren esku utzi ahal izango da.

2. ATALA: IRAKASLEEN KLAUSTROA

11. artikulua. Irakasleen klaustroaren izaera eta osaketa.

1. Klaustroak, PIO BAROJA BHIa gobernatzeko, irakasleek hartan parte hartzeko, eta koordinaketa didaktikoa eratzeko organo nagusia denak, ikastegiko hezkuntzari dagozkion gorabeherak planifikatzeko, koordinatzeko, erabakitzeko eta argibideak emateko ardura du.

2. Klaustroaren bilera burua zuzendaria izango da eta ikastegian lanean ari diren irakasle guztiak izango dira klaustrokide. Idazkaria, berriz, PIO BAROJA BHIkoa bera izango da.

3. Zuzendariak kale egiten badu bilera buru ikasketaburua izango da, eta biek kale egingo balute, bilera-burua irakasleen artean ikastegian denbora luzeena daramana izango da. Idazkariaren ordezkio, denbora laburrena daramana.

12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu- arautegia

1. Klaustroa, gutxienez, hiruhilean behin bilduko da, zuzendariak deituta edo klaustrokideen arteko herenak eskatuta. Nahitaezkoa izango du, gainera, ikasturtearen hasiera-bukaeratan ere biltzea.

2. Klaustroaren bileretara joatea nahitaezkoa da kideentzat.

3. Klaustroaren bilera arrunterako deia (MD010410) astebeteko aurrerapenez egingo da, gutxienez. Gaiak premiazkoak direnean, berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin deitu ahal izango dira aparteko bilerak.

4. Araudi honek edo hezkuntzako legeek aurreikusi gabeko gaietan, klaustroaren funtzionamendua Administrazio Publikoen Araudiko eta Administrazio-Prozedura Arrunteko Legearen II. atarikoan 2. kapituluak dioenari atxikiko zaio.

13. artikulua. Klaustroaren eskumenak Irakasleen klaustroari EEPLko 35.artikuluak eta indarrean diren gainerako xedapenek zehaztutako egitekoak betetzea dagokio.

3. ATALA: ZUZENDARITZA

14. artikulua. Zuzendaritza

1. Pertsona bakarreko gobernu organoek osatzen dute PIO BAROJA BHIko zuzendaritza eta euren egitekoan era koordinatuan arituko dira.

2. Zuzendaritzaren egitekoak EEPLak 36. artikulua adierazten dituenak dira bai eta OOGak edota klaustroak, zeinek bere ahalmenen eremuan, zuzendaritzaren esku uzten dituztenak ere.

3. Zuzendaritzak eskola elkarteko edozein kide deitu ahal izango du bere bileretara, kontsultak egiteko.

4. PIO BAROJA BHIko zuzendaritza bakarkako organo hauek osatuko dute:

ZUZENDARIAK, IKASKETABURUAK, GAUEKO IKASKETABURUAK, IDAZKARIAK, ZUZENDARIORDEAK eta IDAZKARIORDEAK

III. KAPITULUA: KIDE BAKARREKO GOBERNU ORGANOAK

15. artikulua. Zuzendaria

1. PIO BAROJA BHiko zuzendaria da ikastegiaren ordezkari nagusia ikastegiari dagozkion gorabehera guztietan. Bera da Hezkuntzaren Administrazioak ikastegian duen berezko ordezkaria eta bera, taldekako gobernu-organoen buru ere.

2. Zuzendariaren eskumen eta esleipenak EEPLak 34. artikuluan finkatzen dituenak dira.

16. artikulua. Ikasketa-buruak

Ikasketa-buruak, zuzendaritzako kide izatearen ondorioz dituen eskumenez gainera, EEPlko 41. artikulua ematen dizkionak ere izango ditu. Ikasketa-buruak, zuzendariaren ordezkari eta haren agintepean, irakasleen egiteko akademiko ororen buruzagitza izango du eta berak koordinatuko du mintegi buruen eta tutoreen jarduerak.

17. artikulua. Idazkaria

Idazkariak, zuzendaritzako kide izatearen ondorioz dituen eskumenez gainera, EEPlko 41. artikulua ematen dizkionak ere izango ditu. Zuzendariaren ordezkari eta haren agintepean, ikastegiko administrazioko eta zerbitzueta langileen buruzagitza izango du.

18. artikulua. Kide bakarreko gobernu- organoak izendatzeko edo kargugabetzeko proposamenak.

Kide bakarreko gobernu-organok izendatzeko edo kargutik kentzeko proposamenak EEPlak eta indarrean diren arauak diotenaren arabera egingo dira.

19. artikulua. Zuzendaritzako kideen ordezkapena

1. Zuzendaria kanpoan edo erretiraturik, zuzendariordek ez badago, ikasketa-buruak hartuko ditu bere gain, behin behinean, zuzendariaren egitekoak.

2. Ikasketa-buruak erretiraturik edo kanpoan, haren egitekoak, behin behinean, zuzendariak izendatzen duen irakasleak hartuko ditu. Erabaki horren berri OOGari eman beharko dio zuzendariak.

3. Erretiraturik, idazkaria erretiraturik edo kanpoan, idazkariordek ez badago, haren egitekoak, zuzendariak izendatutako irakasleak hartuko ditu. Erabaki horren berri OOGari eman beharko dio zuzendariak.

IV. KAPITULUA: IRAKASKUNTZA KOORDINAZIORAKO ORGANOAK

20. artikulua. PIO BAROJA BHiko koordinaziorako organoak

IES PIO BAROJA BHIn irakaskuntza- koordinaziorako organo hauek izango dira:

- a) Orientazio mintegia.
- b) Departamentu pedagogiko eta ez- pedagogikoak, urtero-urtero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Sailburuordetzaaren aginduen arabera osatuak.
- c) Pedagogia-koordinaziorako batzordea.
- d) Tutoreak.
- e) Gelaz gelako irakasle-taldeak.

1. ATALA. ORIENTAZIO MINTEGIA

21. artikulua. Orientazio mintegia osatzen duenak:

Orientazio mintegia Psikologian eta Pedagogian gaituriko irakasleek osatuko dute.

22. artikulua. Orientazio mintegiaren egitekoak

1. Orientazio mintegiak, oro har, legeek ezarritako betebeharrak izango ditu eta, zehazkiago, Hezkuntza Saileko Sailburuordearen urtero-urtero, zehaztutako ebazpenak. Departamentu osoari dagozkionez gain, departamentuko kide bakoitzak, ebazpenaren arabera, berariaz dagozkion betebeharrez arduratu beharko du.
2. Egiteko horiek, aldatzen ez diren bitartean, 2008/2009ko ebazpeneko VIII gehigarrian datozenak izango dira.

23. artikulua. Orientazio mintegiko buruaren izendapena

1. Orientazio mintegiko burua zuzendariak izendatuko du, urtero-urtero, departamentuak berak proposatutako kideen artean, Psikologian edo Pedagogian trebatutako irakasle dena, betiere, kategoria akademikoari eta espezialitateari erreparatuta.
2. Salbuespenez, zuzendaritzako kiderik ezingo da inoiz orientazio mintegiko buru izendatu, mintegiko kideak baino maila akademiko handiagoa izanik ere.
3. Mintegiko buruari dagokio bertako jarduerak kudeatzea eta koordinatzea, bilerak deitzea eta zuzentzea eta, era berean, bere ardurapean izango du mintegiari dagozkion egitekoak behar bezala betetzea ere.

2. ATALA: DEPARTAMENTU DIDAKTIKOAK

24. artikulua. Departamentu didaktikoen izaera eta osaera

1. Departamentu didaktikoak dira, esleitzen zaizkien gaietan, irakaskuntzaren antolakuntzaz eta garapenez arduratzen diren organoak. Departamentu-buruek gai bera edo hurbilekoa ematen duten irakasleen arteko koordinazioa bermatuko dute. Bai departamentuetako lana eta bai haietan ari diren irakasleen zeregina departamentukide guztiei dagokien egitekoa da.
2. Departamentuetako kideek, asteen behin, ordubeteko bilera arruntera nahitaez joan beharko dute eta, era berean, departamentu-buruak, edo departamentuko kideen herenak, beharrezko iritzi eta deitzen dituzten aparteko bileretara ere nahitaez joan beharko dute.
3. Irakasle bakoitza, asteen zeharko ordutegian zein departamentutan duen ordu gehien, hartan egongo da esleitua. Irakasleren bat departamentu didaktiko batean baino gehiagotan ari bada, ordu gehien ematen dituen joko da esleitutakotzat. Nolanahi ere, irakasten dituen gaietan beste departamentuetako lan eta erabakietan ere parte hartu ahal izango du.
4. Irakasgairen bat departamentu jakin bati esleitu gabe delako, edota departamentu bateko baino gehiagoko kideek irakats dezaketelako, eta legeak lehentasunik finkatzen ez duelako, koordinazio pedagogikorako batzordearen proposamena entzun ondoren, zuzendariak irakasgai hori departamentu bati edo besteri esleituko dio.

25. artikulua. Departamentu didaktikoen eta departamentu-buruen egiteko eta eskumenak.

Bai departamentu didaktikoek eta bai departamentu-buruek ikasturte-hasierako ebazpenean eta gainerako legeetan esleitutako erabakiak beren ardurapean hartuko dituzte.

26. artikulua. Hauxe da PIO BAROJA BHiko departamentu didaktikoen kopurua eta zerrenda, ikasturte-antolamenduaren ebazpenaren arabera:

Liburutegia, Biologia eta Geologia, Marrazketa, Ekonomia, Heziketa Fisikoa, Euskara, Filosofia, Fisika eta Kimika, Frantsesa, Geografia eta Historia, Ingelesa, Informatika, Latina, Gaztelania, Matematika, Orientazioa, Teknologia eta Informatikako tresneriaren mantentze-lanak.

27. artikulua. Departamentu didaktikotako buruen izendapena

Zuzendariak izendatuko ditu, urtez urte, departamentu didaktikoetako buruak, departamentua osatzen duten kideen artetik, betiere kategoria akademikoari eta espezialitateari erreparatuz. Departamentu ez- didaktikoetako buruak ere, urtez urte izendatuko ditu zuzendariak.

Salbuespenez, zuzendaritzako kide bat inoiz ere ezingo da orientazio-departamentuko buru izendatu, departamentuko kideak baino maila akademiko handiagoa izanik ere.

Departamentuko buruari dagokio ikastegiko jarduerak kudeatzea eta koordinatzea, bilerak deitzea eta zuzentzea eta, era berean, bere ardurapean egongo da departamentuari dagozkion egitekoak behar bezala betetzea ere.

3. ATALA: PEDAGOGIAREN KOORDINAZIORAKO BATZORDEA

28. artikulua. Pedagogiaren koordinaziorako batzordearen osaera

PIO BAROJA BHIko pedagogiaren koordinaziorako batzordea honako kide hauek osatuko dute: zuzendariak, mahaiburuko izatea ere berari dagokiolarik, ikasketa-buruak eta departamentuetako buruek.

29. artikulua. Pedagogiaren koordinaziorako batzordea

1. Pedagogiaren koordinaziorako batzordea irakasleen klaustroaren ordezkaritza bat da izatez. Batzordearen egiteko nagusiak dira curriculum-egitasmoa bera eta egitasmoak izan ditzakeen aldaketak koordinatzea, eta lan-taldeen arteko komunikazio-zaulitasuna bermatzea.

2. Egiteko hori betetzeko batzordeak, irakasleen klaustroaren ardurapean, honako eskumen hauek izango ditu:

- a) Curriculum-egitasmoak lantzeko eta aztertzeko gida-lerro nagusiak finkatzea.
- b) Curriculum-egitasmoak idazteaz, berraztertzeaz eta, hala behar balute, aldatzeaz arduratzea, egiteko horiek gainbegiratzea, eta ikastegiaren hezkuntza- egitasmoarekin koherentzia dutela ziurtatzea.
- c) Curriculum-egitasmoan jasota dauden departamentuetako programa didaktikoak, orientazio-akademiko eta lanbide-heziketako plana, eta tutoretzako plangintza egiteko eta aztertzeko gida-lerro nagusiak finkatzea.
- d) Curriculum-egitasmoak klaustroari aurkeztea hark onar ditzan.
- e) Curriculum-egitasmoak betetzen eta, ondoren, ebaluatzen direla begiratzea.
- f) Ikasketa-burutzarekin bat etorritz, ebaluazio- eta kalifikazio-saioen eta aparteko azterketak egiteko egutegiaren plangintza orokorra klaustroari proposatzea
- g) Irakasleen klaustroari honako ebaluazio- plan hauetarako proposamena egitea: Curriculum-egitasmoa, Hezkuntza-egitasmoa, Urteko programa orokorra, ikastegiaren eskola-etekina eta irakaskuntza bera.
- h) Ikastegiko jarduera eta egitasmo guztien ebaluazioa sustatzea, gobernu-organoek edo Hezkuntza-Administrazioak eragindako ebaluazioetan laguntzea eta, ebaluazio horien ondorioz, hala behar balitz, hobekuntza- planak bultzatzea.

4. ATALA: TUTOREAK ETA GELAREN IRAKASLE-TALDEAK

30. artikulua. Tutoretza eta tutoreen izendapena

1. Ikasleei tutoretza eta orientazioa ematea irakaskuntza-jarduera da.
2. PIO BAROJA BHIan, gutxienez ere, ikasle- gelako tutore bat izango da.

3. Ikasketa-buruak proposaturik, zuzendariak izendatuko du gela bakoitzaren tutorea, ikastaldearen irakasleen artetik, betiere ikasturte-hasierako ebazpenaren arabera. (NM010403)

4. Ikasketa-buruak koordinatuko du tutoreen jarduera, eta, jarduera hori aribide onean garatzeko beharrezko diren aldizkako tutore bilerak eratuko ditu.

31. artikulua. Tutoreen egitekoak

Tutoreek ikasturte hasieran urtearen antolamendurako ebazpenak xedatzen dituen lanen eta egitekoen ardura hartuko dute.

32. artikulua. Gelaren irakaskuntza-taldearen osaera eta araubidea

1. Gelaren irakaskuntza-taldea gelako ikasleei eskola ematen dieten irakasle guztiek osatuko dute eta taldea tutoreak koordinatuko du.

2. Gelaren irakaskuntza-taldea ebaluazio- arautegiak dioenaren arabera bilduko da, edota ikasketa-buruak deitzen duen orotan, tutoreak eskaturik, hala egokituz gero.

33. artikulua. Gelaren irakaskuntza-taldearen egitekoak

Gelaren irakaskuntza-taldearen egitekoak honako hauek izango dira:

- a) Gelaren ebaluazioa eta jarraipen orokorra egitea, ebaluazioaz ari den berariazko legeek diotenaren arabera, ikaste-lana hobetzeko.
- b) Gelakideen arteko elkarbizitza hobetzeko beharrezko ekintzak finkatzea.
- c) Gelakideen artean sortutako arazoak koordinatuki maneiatzea, konpontzeko beharrezko neurri egokiak hartuz.
- d) Ikasleei proposatutako ikaste-irakaste jardueretan ahalik eta koordinaketa hoberena bilatzea.
- e) Ikasle bakoitzaren guraso edo tutoreei, hala behar denetan, eman beharreko txostenaren berri izatea eta hura egiten laguntzea.
- f) Barne arautegi honek erabakitako beste edozein.

V. KAPITULUA: PARTE HARTZEKO BERARIAZKO ORGANOAK

34. artikulua. Parte hartzeko berariazko organoak

Eskola-elkarte osoak OOGaren bidez parte hartzeaz gain, ikasleriak eta ikasleen familiek parte hartu ahal izango dute haien elkarteen edota berariazko organoen bitartez.

1. ATALA: IKASLERIAREN PARTE- HARTZEKO BERARIAZKO ORGANOAK

35. artikulua. Ikasleek PIO BHlan parte hartzeko berariazko organoak dira gela- eta maila-ordezkariek eta ordezkarien batzarra.

36. artikulua. Gelako ordezkariak

1. Ikaslegela bakoitzak sufragio unibertsal eta sekretu bidez hautatuko du gelaren ordezkaria, ikasturteko lehen hilabetearen zehar eta urte osorako, ordezkarien batzarreko kidea ere izango dena. Ordezkariorde bat ere hautatuko da, ordezkariaren lekuan arituko dena, laguntza emanez, hark huts egitean edota eri denean.

2. Gelako ordezkarien eta ordezkoren hautaketa ikasketa-buruak eratu eta deituko du; ikasketa-buruak finkatuko du, era berean, botoa emateko arautegia, betiere, artikulua honetako beronetako 3. atalak xedatuaren arabera, eta tutoreen eta OOGko ikasleen ordezkarien laguntzarekin.

3. Gelakide guztiak izango dira hautesle eta hautagai, berariazko hautagaitzarik aurkeztu gabe. Botoa emateko txartelean ikasle bakoitzak izen bakarra idatzi ahal izango du. Boto gehien lortu dituenak izango da ordezkaria, eta,

ordezkariordea, bototan bigarren izan dena. Boto-berdinketa fortunatuko balitz ordezkaria ikasleen arteko zaharrena izango da eta, haren ordezkoa, adinean ere hurrengo dena. (MD010408)

4. Gelaren gehiengo osoak hala erabakita ordezkariaren eta haren ordezkoaren izendapenak ezeztatu ahal izango ditu, tutoreari txosten arrazoitu bat idatzi ondoren. Hori gertatukoan, hamabost eguneko epean, hauteskundeak deituko dira, berriro, aurreko atalean xedatutakoaren arabera. Onartutako dimisioetan ere era berberean jokatu da.

5. Araudi honen betekizunetan ari diren ordezkariak ezingo dira zigortu, ordezkari diren bitartean.

37. artikulua. Ordezkarien egitekoak

Gela-ordezkarien egitekoak honako hauek dira:

- a) Ordezkarien batzarretara joan eta hango eztabaidatan parte hartzea.
- b) Ordezkatzen duten ikastaldearen iradokizunak eta eskakizunak ikastegiaren gobernurako eta didaktikaren koordinaziorako organoei azaltzea.
- c) Gelakideen arteko elkarbizitza bultzatzea.
- d) Tutoreari eta gainerako beste irakasleei ordezkatzeko duten gelaren jardueran laguntza ematea.
- e) Irakasleei eta gobernu-organoei laguntza ematea ikastegiaren jarduerara ona izan dadin.
- f) Ikastetxeko materialaren eta instalazioen erabilera egokia zaintzea.
- g) Bere taldearen ordezkari gisa ebaluazio- bileretara joatea.
- h) Dagokien jardueraren eremuan eskolako gobernu-organismoek eskatzen edo ematen dizkieten egitekoak betetzea.

38. artikulua. Ordezkarien batzarraren osaera eta funtzionamendua

- 1. Ikasleek ikastegiaren kudeaketan parte hartzea bideratzen duen organoa, EEPLko 30. artikulua zehazten duena, ikasleen ordezkarien batzarra deituko da.
- 2. PIO BAROJA BHIK ikasleen ordezkarien batzar bat izango du, gelaz gela, libreki aukeraturiko ordezkariak eta, horiez gainera, OOGko kide diren ikasleek osatua.
- 3. Ordezkarien batzarrak berak eratuko du funtzionamendurako araudia. Araudi hori ikasketa-buruak onartu bezain laster izango da indarrean eta ikasketa-buruak ezingo dio balioa kendu, legeren baten edota araudi beronen edo ikasleen edo eskola-elkarteko beste norbaiten eskubide eta eginbeharren kontra ari ez bada.
- 4. Betiere, ikasleen artean izan daitekeen aniztasuna eta batzar beraren eraginkortasuna zainduko dira.
- 5. Zuzendariak batzarraren esku jarriko du bilerak egiteko eta era egokian jarduteko beharrezko diren baliabideak.
- 6. Ordezkarien batzarreko kideek, euren betekizunen jardunean, OOGaren bileretako aktak zein ikastegiko beste edozein agiri administratibo ikusteko eskubidea izango dute, salbu eta agiriren bat ikusteak eta zabaltzeak norbaiten intimitate-eskubidea urratzen duen. 20/90 urratzen duen.

39. artikulua. Ordezkari-Batzarraren egitekoak

- a) Hezkuntza-egitasmoa, Urteko plana eta Ikastegiko Urteko Oroitidazkia egiteko bai eta eskola-egunaren antolakuntzari buruz proposamenak zuzendaritzari helaraztea.

- b) Ikasleek OOGan dauzkaten ordezkariari laguntza eta sostengua ematea, eta baita argibideak ere ikastalde edo gela bakoitzari buruz.
- c) Ikasleek OOGan dauzkaten ordezkariengandik bileretako gai-zerrendari, aztertutako gaiei eta hartutako erabakiei buruz argibideak izatea.
- d) Ordezkarien batzar beraren erabakiz zein OOGaren eskariz, OOGarentzako txostenak idaztea.
- e) AJA aldatzeko proposamenak egitea, batzar berari dagozkion eskumenetan.
- f) Batzarraren jardueren berri ikasleei ematea.
- g) Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak garatzeko proposamenak egitea.
- h) Ikasleei berriaz dagokien beste edozein jarduera edo erabakitzea.

2. ATALA: IKASTEGIAN LEGEZ ERATUTAKO ELKARTEAK

40. artikulua. Ikasleen familia- eta tutore- elkarteak

1. PIO BAROJA BHIak ezagutu, egoitza soziala eman eta ikastegiaren jardueran parte hartzea errazten die ikasleen gurasoen elkarteei, indarrean dagoen 66/1987 Dekretuan, otsailaren 10ekoan, erabakitakoaren arabera, zeinak arautzen baititu Euskadiko Erkidego Autonomoko Gurasoen Elkarteak. Era berean, legez eratutako ikasleen elkarteei ere egoitza soziala eman eta ikastegiaren funtzionamenduan parte hartzea erraztuko die.
2. Zuzendariari dagokio legez eratutako elkarteek iraunkorki erabiliko dituzten lekuak zehaztea bai, eta, elkarteetako ordezkariak aldi baterako eskatu dutelako, guztientzako eremuak erabiltzeko baimena ematea.
3. Legez eratutako erakunderik ezingo da diskriminatu, legeak Guraso Elkarte ordezkariak OOGan ordezkari bat zuzenean izatearen alde dioena salbuetsita.
4. Ikastegiko gobernuetako kideek, derrigorrean, ez dute bultzatuko ez eragotziko gurasoek edo ikasleek legez eratutako elkartetan izena ematea edo ez ematea, ez eta elkarteak diruz laguntzen eragina izan dezakeen ezer.

41. artikulua. Legez osatutako elkarteetan parte hartzea

1. Gurasoen eta ikasleen elkarten eskumenak izango dira:
 - a) OOGari Hezkuntza-egitasmoa edota Urteko egitarau orokorra osatzeko edo aldatzeko proposamenak helaraztea.
 - b) OOGari egoki deritzoten ikastegiko zein nahi jarduerari buruzko argibideak ematea.
 - c) Eskola-elkarteko kideei garatzen dituzten jardueren berri ematea.
 - d) OOGan aztertutako gaien berri izatea, bai eta bilerako gai-zerrenda ere bilera baino lehen, proposamenak egin ahal izateko.
 - e) Elkarten erabakiz zein OOGaren eskariz, OOGarentzako txostenak idaztea.
 - f) AJA aldatzeko proposamenak egitea.
 - g) Jarduera osagarriak aurrera eramateko proposamenak egitea.
 - h) Emaizta akademiko orokorren eta haietaz eskolak egiten duen balioespenaren berri izatea.
 - i) Hezkuntza-egitasmoa, Curriculum- egitasmoak eta horien aldaerak biltzen dituen testu idatziaren ale bat jasotzea.
 - j) Ikastegian erabiltzen diren testuliburuez eta didaktikarako materialez argibideak izatea.

k) Eskola-elkarteko kide guztien artean lankidetzaz sustatzea.

l) Ikastegiko instalazioak zuzendariak erabakitako eran erabiltzea.

II. IDAZPURUA: ELKARBIZITZARAKO ARAUDIA

I. KAPITULUA. OINARRI OROKORRAK

42. artikulua. Elkarbizitzaren oinarria

PIO BAROJA BHIak bere gain hartzen du elkarbizitzaren oinarrian eskola-elkarte osoak begirunea eta babesa eman behar diela ikasleen eskubideei eta eskubide horiek arduratsuki erabili behar direla eta, era berean, ikasleek, eurei dagozkien betebeharrak arduratsuki beteko dituztela, idazpuru honek arautzen duenaren arabera.

43. artikulua. Elkarbizitzarako plana

PIO BAROJA BHIak elkarbizitzarako araudi bat idatziko du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakitakoaren arabera. Araudi horren helburu nagusia elkarbizitzaren urraketak aurreikustea izango da eta, urraketarik gertatuko balitz, Ikasleen eskubide eta betebeharren Dekretua, 201/2008ko abenduaren 2koak erabakitzen dituen ekintza eta neurri alternatiboen bidez konpontzea, horretarako, behar izanez gero, bitartekaritzara ere joz.

44. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

Ikasleek aipatu Dekretuko 6-19 artikuluetan jasotako eskubideak dauzkate. Ikasleek eskubide horien erabilera trabatu edo urratu egiten dutela ikusten duen irakasleak berehala egingo dio oharra, hitzez, hutsegileari, eta, ikasketa-buruarengana joateko aginduko dio. Hark gertatua idatziz jasoko du, horretarakoxe den (MD020302) inprimakian.

45. artikulua. Betebeharrak beteko diren bermea

Ikasleek aipatu Dekretuko 21-27 artikuluetan jasotako betebeharrak dauzkate. Betebehar horien urraketaren bat ikusten duen irakasleak zuzendu egingo du portaera hori eta, eskola-elkarteko kideren baten eskubideak oztopatu edo erasotu egiten dituela baderitzo, ikasleari ikasketa-buruarengana joateko aginduko dio.

II. KAPITULUA: IKASLEEN ESKUBIDEAK ERABILTZEKO BERMEA

46. Artikulua. Irakasleen parte hartzea ikasleen eskubideen alde

PIO BAROJA BHIko irakasle guztiek lagunduko dute 201/2008ko Dekretuan, abenduaren 2koan ikasleei aitortutako eskubideak babesten, araudi honen beronen eta gobernu-organoen jarraibideei atxikiz.

47. artikulua. Segurtasunarekin loturiko eskubideen arreta

1. Bai tutoreek eta bai beste irakasleek ikasketa-burua zein zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute ikasleren bat tratatu txarrean edota arriskuan edo babesik gabe sumatuko balute, ikasleen Eskubideen eta eginbeharren dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. Irakasle guztiei dagokie kideen arteko tratatu txar egoerak aurreikustea edota ahalik eta lasterren antzematea. Bullying-arrastoren edo cyberbullying-arrastoren bat ikusiz gero zuzendaritzari jakinarazi behar zaio horretarako dagoen jarraibideari ekiteko.

3. Irakasle guztien eginkizuna da suizidio arriskuko egoerak hautemateko jarrera aktiboa izatea. Ikusten den suizidio arriskuaren edozein zantzu berehala jakinaraziko zaio zuzendaritza-taldeari, dagozkion protokoloen jarraipena egin dezan.

4. Irakasle guztien eginkizuna da trans edo genero-portaera ez-arauemailea duten ikasleei laguntzea, ikasle horiei eta haien familiei laguntzeko, hala eskatu dietenean.

5. Irakasle guztien eginkizuna da jarrera aktiboa izatea ikasleen aurkako indarkeria-egoerak eta balizko indarkeria-kasuen biktima diren emakumeak hautemateko. Indarkeria matxistaren zantzurik ikusten bada, berehala jakinaraziko zaio zuzendaritza-taldeari, dagozkion protokoloen jarraipena egin dezan.

6. Irakasle guztien eginkizuna da jarrera aktiboa izatea ikasleen balizko egoerak hautemateko orduan, desortekzioaren, tratu txarren, sexu-jazarpenaren eta sexu-abusuaren biktima izan baitaitezke. Ikusten den edozein desortekzio, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu zantzu berehala jakinaraziko zaio zuzendaritza-taldeari, dagozkion protokoloen jarraipena egin dezan.

7. Zaintzako irakasleek dute ikastegiko kontrolaren ardura eskola-orduetan. Eskola- etenetan ikasleek ezingo dute ikastetxetik irten, behar bezala justifikaturiko arrazoirik gabe. Errekreoalditan, ostera, non eta etxekoek bestelakorik berariaz, jakinarazi ez duten, ikastetxea inguratzen duen eremutik kanpo irtetea izango dute.

8. Ikastetxearen plan estrategikoan kontuan hartutako helburuak dira lan giro eta segurtasun egoera eskaintzea; bestalde, norberaren osasuna babesteko jokabide arduratsua eragitea ;hau lortzeko protokoloa dago (NM060901) bertan osasun, gaixotasun edo ikasleen istripuak, arrisku egoeren prebentzioa eta segurtasunari dagozkion gaiak adierazten dira .

48. artikulua. Ohorearen, intimitatearen eta irudi propioaren babesa

1. PIO BAROJA BHIko gobernu-organoek, tutoreek eta irakasle guztiek ikasleek eta eskola-elkarteko kide guztiek ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesturik izateko duten eskubidea babestu beharko dute. Inola ere ez da baimenduko geletan grabaziorik, argazkirik edota telefono mugikorrik erabiltzea.

2. Gelaz kanpo, ikastetxean edota berau inguratzen duen eremuan debekaturik dago eskola-elkarteko inori, berariazko baimenik gabe, argazkirik edo grabaziorik egitea eta, egin ondoren, berariaz baimendurik ez den erabilerarik egitea, baimenpean lorturiko argazki edo grabazioekin.

49. artikulua. Biltzeko eskubidea

1. PIO BAROJA BHIko gobernu-organoek legeek ikasleei aitortzen dien biltzeko eskubidea era eraginkorrean betetzen dela ziurtatuko dute, eskubideari dagozkion xehetasun guztiei erreparatuz, eskubidearen erabilerak heziketaren helburua bete dezan eta adingabea babesteko legeak ezarritako arauekin bat etor dadin. Horretarako, kide bakarreko gobernu-organoek gogoan izango dute honako hau:

a) Ikastaldeek tutoritza-ordua gelan bilera egiteko erabili ahal izango dute, tutorea jakinaren gainean edota bileran bertan dela, gai akademikoak jorratzeko. Bilera horretan ezingo du parte hartu berez taldekoa ez denak. Tutorea bertan ez bada, mahaiburutza eta bilera-gidaritza gelaren ordezkariari dagokio.

b) Zuzendariak zehaztuko du non bilduko den ordezkarien batzarra, araudi honetako 38. 2 artikuluan bilerak egiteko aurreikusten den araubideari lotuko zaiona.

c) Ordezkarien batzarrak egoki deritzon orotan egin ahal izango die kontsulta ordezkatzan dituen ikasleei. Hori egin ahal izateko ordezkarien batzarrak baimena eskatuko dio ikasketa-buruari. Hark kontsulta egitea baimendu edota debekatu egingo du, gai- zerrendari erreparatu eta kontsulta-gaia ordezkarien batzarraren eskumenen artean dagoen aztertu ondoren. Kontsulta egitea debeka daiteke aurreragoko batzarra(k) gai- zerrendari lotu ez zai(zki)olako ere. Ikasketa-buruaren erabakiaren kontra zuzendariari erreklamatzea egongo da.

d) Batzarrarerako deialdia batzar egunaren bezperan gai-zerrendaren berri ematearekin batera egingo die gelaren ordezkariak ikasle guztiei.

e) Ikasketa-buruak, zuzendariaren agintaritza gorenaren pean, erabakiko du kontsulta egiteko lekua eta tenorea, berez, eskola-orduz kanpo egingo dena. Dena dela, ikasketa-buruak eskola-ordutegia egokitzeko aukera izango du eskolen iraupena laburtu gabe, betiere.

f) Nola nahi ere, OOGko hiru saihetsetako bakoitzak, alegia, ikasleek, gurasoek eta irakasleek gehiengo soilez onartzen badute, eta aztergaiek horrenbestera funtsa eta kopurua biltzen dituztela uste badu ikasketa-buruak, batzarrak ordubete irauteko neurrian laburtu ahal izango dira eskola- orduak. Denbora-murriztea eskola-ordu guztiei ezarriko zaie, irakasle guztiak bezperatik erabakiaren berri badute; oster, erabakia egunean bertan hartzen bada denbora murrizketa batzarra egingo den errekreoaren aurreko eta ondoko eskola-orduei baino ez zaie ezarriko.

50. artikulua. Taldean eginiko hutsegiteen arauketa. Horri buruzko dokumentazioa hemen: PR0104 eta NM020102

Desadostasunen bat adierazteko eskolara joateari utzi nahi bazaio, horretarako proposamena eta erabakia hurrengo ataletan araututakoaren arabera bideratuko dira:

a) Deialdia egiten duten erakundeetako bozeramaileek edo deialdi ofizial bat aurkeztu nahi duten bozeramailerik gabeko ikasleek ikasketaburutzara joko dute deialdiaren berri emateko. Une horretan, 50 sinadura eta deialdi ofiziala atxekituko dituzte. Pausu guzti horiek, 48 ordu baino lehen egin behar dira. atxekituko dute.

b) 50 sinadurak lortu ondoren, eledunak zuzendaritzarekin bilduko dira, deialdiaren edukiaz argibideak emateko eta proposamenaren xehetasunak adosteko, honako gorabehera hauek kontuan izanik:

- Deialdiak hezkuntzaren edo prestakuntzaren helburuarekin eta ikastegiarekin duen lotura.
- Behar bezala zabalduko deialdi hedatuago batean txertatua egotea.
- Deialdiaren egokitasuna egutegiaren ikuspegitik.
- Egin berri samar den edo, agian, egiteko den beste deialdiaren batekin duen hurbiltasuna.

Bilera hori, gutxienez ere, deialdia baino 48 ordu lehenago egin beharko da. Salbuespenez, 48 orduko epea betetzen ez bada ere, zuzendaritzak jarraibideari ekitea onartu egingo du.

c) Zuzendaritzarekin akordioa lortu ondoren, ikasketa-buruak ordezkarien batzarra deituko du eta bertan ordezkariak euren proposamena eta zuzendaritzarekin adostutako xehetasunak, propio horretarako apailaturiko inprimakian jasorik direnak, azalduko dituzte. Delegatuen batzarrak proposamena onartu edo baztertu egingo du botazio sekretuan eta gehiengo absolutuz (hau da, delegatuen kopuruaren erdiak gehi batek aldeko botoa beharko dute.

d) Batzarrak proposamena onartzen badu, ikasketa-buruarekin adostutako orduan, ordezkariak, zeinek bere gelakideei, ikasle guztiei emango diete erabakiaren berri. Boto emateak gelaz gela egingo dira, ikasketa-buruak izendatutako irakaslearen ardurapean. Ez deialdiari jarraitu eta ez botoa eman nahi duten ikasleek ekintza horiekin lotespenik gabe geratzea izango dute.

e) Boto ematea bukatu ondoren, gelaren ordezkariak zenbatu egingo ditu guztiak eta akta beteko du. Aktan honako xehetasun hauek zehaztuko ditu:

- Botoa emateko unean gelan zenbat ikasle zegoen.
- Zenbat gelakidek eman duen botoa eta zenbatek, ez (lotetsi gabeak).
- Proposamenaren alde, kontra, zurian edo balio gabe diren botoen kopurua.

Ordezkariek gelaz gela eginiko botazioen emaitzak ikasketa-buruari eramango dizkiote eta hark egingo du zenbaketa orokorra.

f) Proposamena, edozein delarik ere, GEHIENGO ERLATIBOZ (ikastegian presente dauden ikasleen erdia baino bat gehiago) onartuko da. Boto kopurua horrenbestera iristen ez bada, proposamena gehiengoak onartu gabekotzat joko da eta, ondorioz, bertan behera geratuko.

g) Botazioan parte hartzen duen ikasle orok aintzat eta begirunez onartu beharko du emaitza, gehiengoak baiezkoa zein ezezkoa eman proposamenari.

h) Taldean hutsegiteko proposamena onartzen bada ikasleek ezingo dute ikastegian egon, ez bertako instalaziorik ez zerbitzurik erabili. Hutsegite horiek ez dira huts arrunt moduan zenbatuko baina familiei berorien berri emango zaie.

i) Gehiengo ERLATIBOZ erabakitako hutsegiteetan eskola-jardueri bere horretan eutsiko zaie, inongo aldaketarik egin gabe (jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoak, azterketak...). Grebarako eskubidea erabili nahi duen ikasleak jakin beharra du ezingo duela azterketa bat berriro egiteko edota jarduera jakin bat beste egun batera eramateko eskatu. **(1. gehigarria).**

j) Greba prosamena onartzen ez bada ikasleak egun arrunt batean bezala lotuko zaizkie ohiko jardueri. Proposamena atzera bota izan arren eskoletara azaltzen ez diren ikasleen hutsak huts arrunt bezala zenbatuko dira.

k) Deialdiari lotu ez zaizkion ikasleei eskolak emango zaizkiela bermatuko du ikastegiak.

l) Zuzendaritzak aurreikusitako jarduerak aldatu ahal izango ditu ikastegiaren segurtasuna dela-eta hala egin behar dela baderitzo.

m) Lotetsi gabeko ikasleak klasera joaten ez badira edo zuritu gabeko ez-bertaratze kolektiboaren kasuan, bizikidetzaren aurkako jokabideetat hartuko da (56. Artikulua), eta AJAren 57. artikuluan jasotako neurri zuzentzaileak aplikatuko dira. Kasu horretan, hutsegitearen ezaugarri berezia kontuan hartuta, ebaluazioan zehar egingo diren jarduera osagarrietan eta apartekoetan parte hartzeko ezintasuna lehenetsiko da. Ondorioz, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko 2008/XII Dekretuaren 30. artikulua aplikatuko zaio.

n) Justifikatutako arrazoiak direla-eta irakasleak kanpoan egon badaitezke, ikasketaburutzak erabaki ahal izango du lehenengo orduan edo azken orduan klasera ez joatea, irakasleak bestelakorik adierazi ezean. Buruzagitzak egoera horren berri emango dio ikasle-taldeari, bai taldearen posta elektronikoz, bai ikasgelan bertaratuz. Ikasleak bere kabuz huts egiten badu, ikasketa-buruaren oniritzirik gabe, bizikidetzaren aurkako jokabideetat hartuko da, 56, eta AJAren 57. artikuluan jasotako neurri zuzentzaileak aplikatuko dira. Kasu honetan, hutsegitearen ezaugarri berezia kontuan hartuta, ebaluazioan zehar egingo diren jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan parte hartzeko ezintasuna lehenetsiko da. Ondorioz, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko 2008/XII Dekretuaren 30. artikulua aplikatuko zaio.

ñ) Justifikatutako arrazoiak direla-eta irakasleak kanpoan badira, ikasketaburutzak taldearen ordutegia aldatzeko erabakia hartu ahal izango du, eskolak aurreratuz edo atzeratuz, ordutegiaren barruan dauden aukeren arabera. Aldaketa horiek egitea ezinezkoa bada, guardiako irakaslea joango da, eta ikasleek agindutako lana egingo dute. Ikasleak erabakitzen badu bere kabuz ez geratzea klasean, irakaslea ez dagoenean, ikasketa-buruaren oniritzirik gabe, bizikidetzaren aurkako jokabideetat hartuko da, 56, eta AJAren 57. artikuluan jasotako neurri zuzentzaileak aplikatuko dira. Kasu honetan, hutsegitearen ezaugarri berezia kontuan hartuta, ebaluazioan zehar egingo diren jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan parte hartzeko ezintasuna lehenetsiko da. Ondorioz, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko 2008/XII Dekretuaren 30. artikulua aplikatuko zaio.

51. artikulua. Adierazpen-askatasunerako eskubidearen idatzizko erabilera

1. Ikasleei adierazpen-askatasuna aitortzen dien 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa erabiltzeko honako xehetasun hauei erreparatuko zaie:

a) Ikastetxea inguratzen (eta alanbre-sareak biltzen) duen eremua edozein eratako jende- elkarretaratzetik edo agerpen politikotatik babestuko da, eta, ideiak idatziz adierazteko berariaz jarrita dagoen eremua erabiliko da. (Ezkaratzetan dauden kortxoetako ohar-etaulak).

b) Aukeratutako leku eta gunetan jarritako informazioak argi-argi zehaztu beharko du edukiaz jabe egiten den pertsona, erakundea, taldea edo kidegoa nor den eta informazioaren edukiak ezingo du inoren aurkako irainik, mehatxurik edo kalumnariarik jaso.

c) Geletan eskola-jarduerari buruzko informazioa baino ez da egongo.

2. Arau horiek betetzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira zuzendariaren edota ikasketa-buruaren aginduz.

III. KAPITULUA. EGINBEHARRAK BETETZEAREN BERMEA

52. artikulua. Oinarri orokorra

1. 201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak ikasleei ezartzen dizkien eginbeharrak, hau da, ikasi beharra, azterketa eta jardueratan zintzotasun akademikoak jokatu beharra, prestakuntza-ekimenetan parte hartu beharra, eskoletara joan beharra, elkarbizitza babestu beharra, bakoitzaren kontzientzia-askatasuna errespetatu beharra, ikastegiko arauak bete eta ikastetxeko instalazioak zuzen erabili beharra urratzea beti izango da, gutxienez, jokabide desegokia eta, hala balegokio, elkarbizitzaren aurkakoa edo elkarbizitzari kalte larria eragiten diona, eskola-kideen eskubideak erabiltzea oztopatzen badu edo zuzen-zuzen eskola-kideak erasotzen baditu.

2. Aipatutako eginbeharrak urratu egiten direla ikusten duen irakasleak elkarbizitzarekin bat ez datozen jokabideak zuzendu egin behar ditu, aipatu dekretuak eta araudi beronek agindutakoaren arabera.

53. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak

Ahal den epe laburrenean zuzendu beharreko jokabideak dira 201/1008 Dekretuak desegoki, elkarbizitzaren aurkako edota elkarbizitzarentzako larriki kaltegarri definitzen dituenak. Neurri zuzentzaileak jokabidearekin erlazionatzen saiatu beharra dago neurriak jokabidearen ondorio saihestezin bezala atxikiak izan daitezen.

54. artikulua. Jokabide desegokiak

1. Eskubideen eta Eginbeharren Dekretuko 30. artikuluan zerrendatuak daude jokabide desegokiak:

a) Justifikatu gabeko puntualtasun- hutsegiteak.

b) Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak

c) Ikastegiko instalazioei, materialari edo eskola-elkarteko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.

d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziiplina nahita hausten ez badu; baita ikastegiko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.

e) Eskola-elkarteko kideen aurkako adeitasunik ezeko jarrera, keinu edo hitzak

f) Gobernu organoek beren eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxe barruan eramatea. (1. eta 6. gehigarria)

g) Ikastegiko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.

h) Ikastegiko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek eskola-elkarteko inori kalterik eragiten ez badio.

i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiazea edo besteei norberarena kopiazen erraztea, edo, azterketa, proba edo ariketa horietan baimendu gabeko material edo aparatuak erabiltzea.

j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxerako sarbidea erraztea edo haiekin batera sartzea, ikastegiko elkarbizitza-arauen edo gobernu- organoen jarraibideen aurka.

k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.

l) Norbere eginbeharren beste edozein ez- betetze, betiere eskola-elkarteko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastegiko elkarbizitzaren aurkako jokabide gisa edo elkarbizitza horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatua ez badago.

2. PIO BAROJA BHlan jokabide desegokien zuzenketa, dekretuaren arabera, une horretan ikaslea zaintzapean duen irakasleak egingo du.

3. Ikasketa-burutzak erabakiko du zein jarraibide erabili, betiere arautegiaren barruan, eta kontuan izanik neurria hitzezko ohartarazpen bat baino ez bada, tutorea jakinaren gainean jarri behar dela. **(2. gehigarria)**

55. artikulua. Jokabide desegokien hezkuntza-neurri zuzentzaileak eta beste ondorio batzuk (Eskubideen eta Eginbeharren Dekretuko 34. artikulua)

a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak INIKAn jasoko dira.

b) Justifikazio gabeko bertaratze-hutsegiteak DC020506 jardunbidean zehaztutakoaren arabera kudeatuko dira. Bertaratze-hutsegiteak justifikatuak izango dira soilik hurrengo kasuetan:

- Zuzendaritzak ulertzea osasun arrazoiengatik osasun zerbitzuetara bertaratzeko beharra izatea. Honek ez ditu barne hartzen norberak hautatutako eta alternatiba zuten bisitak (haginelariari bisitak, ohiko errebisioak...) ezta gaizkiegon arinak ere.
- Zuzendaritzak ulertzea legez derrigortutako tramite bati aurre egin behar izatea. Honek ez ditu barne hartzen norberak hautatutako eta alternatiba zuten bisitak (NAN berrikuntza, enpadronamenduak...)
- Zuzendaritzak ulertzea egon direla familian gertatutako gertakari larriak, hala nola, heriotzak, bat-bateko gaixotasunak... Honek ez ditu barne hartzen norberak hautatutako oporrak, ikaslearen erabakiz etxean gelditzea edota ikasten gelditzea.
- Ebaluazio probetan bakarrik justifikatuko dira:
 - Aldez aurretik INIKA bidez abisatutako, arrazoitutako eta zuzendaritzak onartutako hutsegiteak.
 - Egun osoko hutsegiteen kasuan, aldez aurretik abisatu ez bada, INIKA bidez tutoreari eta zuzendaritzari azaldu eta hauek onartutako hutsegiteak.
 - Momentuko hutsegiteen kasuan, non ikaslea eskolara etorri eta ebaluazio proban agertzen ez den, bakarrik justifikatuko da irteterako garaian atezaintzan abisua utzi badu eta egunean bertan INIKA bidez tutoreari eta zuzendaritzari abisatu eta hauek onartutako kasuak.
 - Arrazoiketek atxikituta eramango dute:
 - Absentzia justifikatzen duen dokumentu ofiziala.
 - Dokumenturik ez badute, idatzizko arrazoiketa zehatza ikaslearen izenarekin, galdutako ebaluazio probarekin, hutsegitean justifikazioaren arrazoiketarekin eta adin nagusia den sinatzailearen deitura, NAN eta sinadurarekin.

c) Ikastegiko altzariei narriadurak eragiteak (zoruak, mahaiak, hormak zikintzea, etab.) egindakoa berehala konpondu beharra ekarriko die egileei, okerra harrapatu duen irakaslearen ardurapean.

Instalazioak gaizki edo desegoki erabiltzeak kalterik eragiten badu kaltegileek okerrak ordainduko dituzte. Neurri horrek erabiltzaile guztiak hezi nahi ditu ondasun publikoen artapenean eta errespetuan. Aldi berean, institutuak alor honetan beharrezko baliabideak baino ez ditu erabili nahi, baliabide horiek jarduera osagarrietan, liburutegiko funtsa osatzen, etab. enplegatuz.

Holako kasuetan erabiltzen den prozedura honako hau da:

1. Kaltea ondasunak oker erabilia ikasle jakin batek eragina bada, ikasleak izango du kaltea ordaindu beharra.

2. Kaltearen erantzukizuna bere gain hartu nahi ez duen gela batean gertatu bada, erantzulea gela osoa izango da.

3. Okerra denek erabiltzen duten aieka batean gertatu bada (korridore eta komunetan, batez ere) aieka horretako gelen erabiltzaileak izango dira erantzuleak.

Ikasgelak txukun jartzen zaizkie ikasleei, erabiltzeko prest. Akatsak izan daitezkeelako eta erabileraren txukuntasun-maila nabarmentzeko ikasleek, ikasturte-hasieran gelaren eta denek darabiltzaten zerbitzuen inbentarioa egiten dute (MD020112). Agiri hori ikasturtean zehar eta, batez ere, bukaeran erabiltzen da egindako kalteen balioespenerako. Institutuko idazkaria da kalteak kontrolatzearen, erantzukizunak finkatzearen, konponketa kudeatzearen eta ordaintzeko epea mugatzearen kargua duena. Ikasleek eginiko galderei eta erreklamazioei erantzutea taldearen tutoreari dagokio, lehen-lehenik. Tutorearen erantzuna ez bada ikasleen gogobetekoa ikasleek ikastegiko idazkariarengana jotzea izango dute.

Kalteak behin eta berriro eragiten dituen ikasleak ikasketa-buruarengana joan beharko du eta hark arratsaldetan institutura etorraraziko dio ikastetxearen mantentze-lanetan laguntzera.

d) Azterketak edo bestelako probak kopiatzea edo beste norbaiti kopiatzen erraztea azterketa erretiratuz zuzenduko du gertaera harrapatu duen irakasleak eta, gertatuaren berri emango dio gaiaren irakasleari, azterketa baliogabetu dezan, eta, ikaslearen tutorea ere jakinaren gainean jarriko du. Tutoreak gertatuaren berria idatziz jasoko du.

e) Debekatuta dago gelan txano, mugikorra edo bestelako tresna elektronikorik erabiltzea. Gailu elektronikoen kasuan debekua ikastegi guztira zabaltzen da. Arau hau betetzen ez bada, irakasleak delako tresna edo aparailua jaso eta ikasketa-buruari eramango dio. Berreskuratu ahal izateko ikasleak familiako arduradunen batek lagunduta etorri beharko du haren bila. Ikus protokoloa 5. Gehigarrian

f) Ikasleren batek baimendu gabeko inori instituturako sarbidea errazten badio, zuzendariarengana aurkeztu beharko du.

g) **Eskubideen eta Eginbeharren Dekretuko d, e, g, h, j eta k ataletan jokabide desegoki moduan** zerrendatutako lotsagabekeriazko desobeditze, jarrera, keinu edo hitzak, ekipamendua baimenik gabe erabiltzea, gezurra esatea edo ikaskideen gauzak jabearen borondatearen kontra berariaz erabiltzea, gorago aipatutako Eskubideen eta Eginbeharren Dekretuak ezarritako ereduari jarraiki zuzenduko dira:

- Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa egingo da.
- Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartuko da.
- Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egingo dira.
- Jokabidearen desegokitasun-markarekin zerikusia duen zereginen bat egingo da.
- Zuzendaria, ikasketa-buruaren edota une horretan ikastegiaren ardura duen zuzendaritzako kideren baten aurrean agertzeko agindua emango da.

h) Bertaratze hutsegite ez justifikatuek honako ondorioak izango dituzte:

- Ebaluazioan, ikasgaiaren %20ko hutsegiteak gaingiditzean ebaluaziorako eskubidea galdu eta ohiko deialdira joango da ikaslea. Erabakia INIKA bidez komunikatuko da.
- Ikasgaiaren hutsegiteek %20 gaingiditzean familiari komunikatuko zaio, 30% gaingiditzean idatzizko abisua entregatuko da eta 40% gaingiditzean eskolaz gaingidiko ekintzetan parte hartzeko eskubidea galduko du. Erabakia INIKA bidez komunikatuko da.
- Kurtso guztiko hutsegiteek ikasgaiaren %20 gaingiditzen badute ebaluazio eskubidea galdu eta ohiko deialdira aurkeztu beharko da ekainean.
- Ebaluazio proben kasuan:
 - Proba egiteko eskubidea galdu eta atal horretan 0 izango du.

56. artikulua. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak

1. Ikastegiko elkarbizitzaren aurkako jokabideak Eskubideen eta Eginbeharren Dekretuko 31. artikuluan zerrendatutakoak dira:

- a) Ikastegiko kide bakarrek aginte organoen edo irakasleen aginduak eta ikastegiko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desfioak edo mehatxuak egiten badira.
- b) Ikaskideen edo eskola-elkarteko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, jokabide horiek ikastegiko elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, eta baita beste honako hauek ere: eskola-elkarteko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.
- c) Edozein gauza edo ondasun (diru, liburu, mugikorra, etab.) eskola-elkarteko edozein kideri edota eskola berari lapurtzea.
- d) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak zabaltzea, saltzea edo erostea.
- e) Nota-buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkarietarako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.
- f) Bidegabeko erabileragatik kalteak eragitea ikastegiko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastegiko elkarbizitzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- g) Ikastegiko OOGak hartutako baliadun erabakiak nahita ez betetzea.
- h) Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek edo, hala egokituz gero, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- i) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- j) Bidaiatako eta institutuz kanpoko beste jarduera batzuetako ordena nahasten duten portaerak, bai bakarka bai taldean, eta betiere elkarbizitzan kalte larria eragiten ez badute. Kasu honetan horretarako dagoen araudia ezarriko da. (NM020301)
- k) Eskola-elkarteko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.
- l) Ikastegiko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz eskola- elkarteko beste kide batzuei kalte eginez.
- m) Diskriminazioa dakarren edozein ekintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere elkarbizitzan kalte larria eragiten duen jokabideatzat hartzen ez bada.
- n) Goragoko g atalean adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.
- ñ) Eskolatik kanpo egotea honako egoera hauetan:
- 1.- Greba-deialdirik egin ez bada eta eskolara joan ez bada.
 - 2.- Greba-deialdi bat egin denean, eta irakasgaiaren ebaluazioarekin lotura zuzena duen ariketaren bat egin behar den orduetan baino ez badago ikastetxean (egindako ariketa bertan behera uzteko aukera dago).

3.- Justifikatutako arrazoiren batengatik irakasleak bertaratu ez badira, ikastetxera ez joatea ikasketaburutzaren alde aurreko onespenerik gabe.

o) Ikasleen eginbeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere eskola- elkarteko gainerako kideei eskubideak baliatzeko edo eginbeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan zerrendatuta ez badator, ikastegiko elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

2. Elkarbizitzaren aurkako jokabideren bat ikusten duen irakasleak hala jokatu duen ikasleari hitzez ohartaraziko dio eta ikasketa-buruarengana edo haren ordezkorengana joateko aginduko dio eta ikasketa-buruak, zuzendariarekin ados, erabakitako prozedurari jarraiki, gertakarien eta jokabidearen berehalako zuzenketan izandako parte hartzearen berri emango du.

57. artikulua. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak zuzentzeko prozedura

Elkarbizitzaren aurkako jarrerak zuzentzeko 201/2008ko Dekretuak, abenduaren 8koak dioena hitzez hitz ezarriko da, betiere gatazkak konpontzeko Dekretu bereko III. kapituluan aipatzen diren bide alternatiboak erabiliz.

Elkarbizitzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurreko artikuluan zerrendatutako neurriak edo honako hauekiko bat edo gehiago aplikatu ahal izango ditu:

a) Elkarbizitzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.

b) Idatzizko ohartarazpena. Adingutxiko ikasleak izatekotan, aita, ama edo legezko ordezkarien aurrean egin behar da.

c) Oste edo lapurreta gertatuz gero, egileak osatutakoa itzuli edo ordaindu behar du eta egilea nor den jakin ezean, talde osoak egingo du.

d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea edo, hala egokituz gero, ikastegiko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, hiru hilabetez gehienez ere.

f) Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastegira etortzeko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkarekin elkarbizitzak izan arte. Neurri horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.

g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea erabili den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduerak osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea erabili den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere eskola-ordutegian ikastegiak ikasleari arreta emanaz.

1.g) eta 1.h) ataletan aipatutako neurriak ez dira erabiliko salbu eta 1.a)-tik 1.f)-ra bitartekoak gutxienez ere bitan aplikatu eta bizikidetzarako kaltegarri diren jokabideetan zuzenketarik ikusi ez bada. Salbuespen gisa, 1.g) eta 1.h) neurriak aplikatu ahal izango dira ikasleak 56. artikuluko 1.º) idatz-zatian jasotako egoeretakoa batean erortzen denean.

58. artikulua. Elkarbizitzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak

1. Elkarbizitzarentzat jokabide larriki kaltegarriak dira Eskubideen eta Eginbeharren Dekretuko 32. artikuluan zerrendatutakoak:

- a) Ikastegiko gobernu organoekiko edo beren eskumenen erabilera diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko ekintza edo desobeditze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita eskola-elkarteko kideen aurkako adierazpen biziki laidoak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idatziz, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
- b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
- c) Jazarpen sexista, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, halakotzat harturik, nahi ez duen pertsona batekin, eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokamolde erabiltzea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kildua, etsai, makurrarazia, iraindua edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
- d) Eskola-elkarteko edozein kideren aurkako eraso fisikoa edo psikologikoa.
- e) Ikastegiko eskola-elkarteko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola, tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzea.
- f) Elkarbizitzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean ahoz, idatziz, baliabide ikus-entzunezko edo informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratua txarreko egoeratan parte hartzen dutenean ere.
- g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- h) Nahita kalteak eragitea ikastegiaren instalazioetan edo ondasunetan, ikastegiko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.
- i) Bidaletako eta institutuz kanpoko beste jarduerak batzuetako ordena nahasten duten portaerak, betiere eskola-elkarteko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.
- j) Grabazioak erabiliz, besteen ohorerako, intimitaterako eta irudi propioarako eskubidea ez errespetatzea, aldez aurretik haiek adierazitako borondatearen aurka edo, hala egokituz gero, euren gurasoek edo legezko ordezkariak berriaz adierazitakoaren aurka.
- k) Ikastegiko jarduerako ekintzetan beste edonoren izena erabiliz aritzea.
- l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen ikastegiko dokumenturen bat edo erregistraren bat kaltetzea, trukatzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkatzea edo baimenik gabe ateratzea ere.
- m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein ekintza, nahita egin bada.
- n) Aurreko artikuluan aipatu elkarbizitzaren aurkako edozein jokabidetan, ikasturte berean, gehienez ere, hiru alditaraino luzatzea, salbu eta 1.m) atalean jasotakoan, betiere aurreneko biak zuzendu badira eta, hala egokituz gero, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaie.
- ñ) Norberaren eginbeharrak ez betetzeak dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori eskola-elkarteko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jatzeko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

- o) Azterketak, ariketak edo lanak burutzeko inteligentzi artifiziala, itzultzaile neuronalak edo beste edozein baliabide digital edo/ta birtual erabiltzea.
2. Elkarbizitzarentzako larriki kaltegarria den jokabideren bat ikusten duen irakasleak hala jokatu duen ikasleari hitzez ohartaraziko dio eta ikasketa-buruarengana edo haren ordezkorengana joateko aginduko dio eta ikasketa-buruak, zuzendariarekin ados, erabakitako prozedurari jarraiki, gertakarien eta jokabidearen berehalako zuzenketa izandako parte hartzearen berri emango du.
- 1.h) eta 1.i) ataletan aipatutako neurriak erabili ahal izango dira, lehenago ere, bitan bederen, 1.a) eta 1.f) atalen artean zerrendatzen direnetakoren bat erabili eta elkarbizitzarako larriki kaltegarriak diren jokabideetan zuzenketarik lortu ez bada.

59. artikulua. Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideen zuzenketa.

1. Ikastegiko elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan jasotako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak eta, horiez gain, hauetako beste edozein:
- a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastegiko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak edo, hala egokituz gero, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.
- b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara etortzeko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
- c) Ikastegira etortzeko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
- d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo eskolaz kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.
- e) Azterketa edo edozein ebaluazio tresna burutzeko, IA edo bestelako baliabide ez-baimendu bat erabili denaren zantzuak dauden kasuan, irakasleak mintegiarekin eta zuzendaritzarekin kontrastatuko du eta ikasleari froga baliogabetu, berriro eginarazi edota beste moduan ebaluatuaraziko zaio.
2. Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) ataletan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a)-n adierazitako neurrietakoren bat aplikatuta elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

60. artikulua. Ikastegiz aldatzeko proposamena.

1. Ikastegiz aldatzea honako kasu hauetan proposatu ahal izango da:
- a) Ikastegiko elkarbizitzari kalte larria eragiten dion jokabidea ikasleari, gutxienez, bi aldiz zuzendu bazaio, betiere Eskubide eta Eginbeharren Dekretuko 32 artikuluko 1.n) atalean zehaztutakoa salbu, eta lehen zuzenketa gauzatu zenetik ehun eta hogeik eskola-egun baino gehiago igaro ez badira.
- b) Ikastegiko elkarbizitzari kalte larria eragin dion jokabideak berdinen arteko tratatu txarrak edo sexuagatiko jazarpena badakartza berarekin batera.
- c) Ikastegiko irakasle bati eraso bazaio.
- d) Salbuespenez, eskola-elkarteko beste kide batzuei eraso larriak egin bazaizkie.

2. Aurreko atalean zehaztu diren jokabideetakoren baten erantzule den ikaslea adinez nagusi bada edo Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko ikasketetan ari bada, urrutiko hezkuntzako, gaueko hezkuntzako edo pertsona helduen hezkuntzako ikastegi batera aldatzea proposatu ahal izango da.

3. Ikaslea ikastegiz aldatzeko proposamena Lurraldeko Hezkuntza Ordezkarari helaraziko zaio. Ordezkariek Hezkuntzako Ikuskaritzari txostena bidali eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du.

61. artikulua. Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna behin eta berriroko bertaratze-hutsengatik.

1. Aurreko artikuluen arabera neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera baztertu gabe, bertaratze-hutsegite asko egin dituztela- eta ikastegiak ebaluazio etengaberako onarturiko metodoak eta irizpideak aplikatu ezin zaizkien ikasleek ez-ohiko probetara aurkeztu beharko dute, ebaluazioa egin diezaieten.

2. Ebaluazioan zehar %20 bertaratze- hutsegitera iristen den unetik aurrera, ikasleak etengabeko ebaluaziorako eskubidea galduko du. Ebaluazio hori ikasturte bukaerako deialdietan ahal izango du gainditzea.

62. artikulua. Oinarrizko gaitasun sozial eta herritarra ebaluatzearen ondorioak.

Oinarrizko gizarte- eta herritartasun- gaitasuna zer neurritan atxiki den ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, irakasle-taldeek edo dagozkien departamentu didaktikoek kontuan hartu ahal izango dituzte elkarbizitzaren kontrako eta elkarbizitzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko neurriek xede dituzten hezkuntza- helburuak bete ez izana.

63. artikulua. Izan daitezkeen kalteengatiko erantzukizuna.

Beharrezko direnean aplika daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikastegiko instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan eragindako kalteak konpontzea ikasleen erantzukizuna da, kalte horiek nahita edo zabarkeria larriki edo ikastegiak onarturiko elkarbizitza-arauen aurkako portaeraren ondorioz eginak badira. Horren ordez, egin beharreko konponketen ordain ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo legezko ordezkariek izango dira erantzule subsidiarioak legeek aurreikusitakoaren arabera.

64. artikulua. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak.

1. Deskribatu diren jokabideak zuzentzeko neurriak aplikatzeko saihestu hauek hartu behar dira kontuan:

a) Deskribatutako jokabideek zer neurritan eragozten dieten eskola-elkarteko gainerako kideei beren eskubideak eta eginbeharrak betetzea.

b) Eskola-elkarteko gainerako kideek beren duintasunean edo autoritatean jasan duten kaltea, edota aipatutako jokabideen ondorioz jasan dezaketena.

c) Ikaslearen jokabidean eragina izan dezaketen inguruabarrak eta ikasleak bere eginbeharrak bete ez dituela-eta 3.3 artikuluko oinarrizko gaitasunetako hutsuneak zuzen balioestea ahalbidetzen duten inguruabar pertsonal eta sozialak.

d) Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.

2. Jarraian aipatuko ditugun inguruabarrei esker hain murriztaileak ez diren eta, era berean, erantzukizuna gutxiagotzen duten neurri zuzentzaileak aplika daitezke. Hauexek dira:

a) Zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela berehala onartzea.

b) Aurretiaz neurri zuzentzailerik jaso ez izana.

c) Materialari edo ondasun higigarriei edo higieizinei kalteak eragin bazaizkie kalte horiek eskola-orduetatik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.

d) Jendaurrean barkamena eskatzea.

e) Kaltea egin duenak hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.

f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

3. Beste inguruabar hauek tartean badira, erantzukizuna handitu egingo da eta eskubideak zuzentzeko neurri murriztaileagoak erabiliko dira:

a) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, ikastegira etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.

b) Kaltea nahita egin izatea.

c) Kaltea apropos edo alde zuzenetik prestatu ondoren egitea.

d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egiteak edo ez-egiteak taldean gauzatzera bultzatu edo akuilatu izana.

e) Jokabidea zuzentzea eragin duten ekintzetan ordezkartza-karguan gehiegikeriaz aritzea.

IV. KAPITULUA. JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

65. artikulua. Xedapen orokorrak

1. Ikastegiko zuzendariak ahalegina egingo du elkarbizitza-arazoak konpontzeko, Eskubideen eta Eginbeharren Dekretuko III. kapituluaren araututako prozedurak erabili gabe eta, ahal dela, AJAko kapitulu honetan adierazten diren bide alternatiboak baliatuta.

2. Lehen-lehenik, zuzendariak ahalegina egingo du alde hauek adiskidetu daitezten: eskola-elkarteko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere eskubideak urratuak ikusi dituen eskola-elkarteko kidea. Horrez gain eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko da.

3. Bide horiek erabilita zuzendutako (elkarbizitzaren aurkako eta elkarbizitza larriki kaltetzen duten) jokabideen berria emango zaie ikastegiko OOGari eta irakasleen klaustroari.

4. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, kapitulu honetan adierazitako bide alternatiboen bidez zuzendu ondoren, soilik ondorio hauetarako jaso eta gordeko dira ikastegian: ikasleak aurrez beste hutsen bat egin duen ala ez jakiteko.

66. artikulua. Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.

1. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendaria, inolako prozedurarik abiatu aurretik, ahaleginduko da ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, neurriak beren borondatez onartuz edo, egoerak hartaratzeko badu, neurriak haien gurasoek edo lege- ordezkariak onartuz. Proposatutako neurriak onetaz onetaz hartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.

2. Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:

a) Adin nagusiko ikasleen jokabideak izan badira ikastegiko elkarbizitzari kalte larriak eragin dizkietenak.

b) 61. Artikuluaren adierazitako jokabideak gertatu badira.

c) Ikastegian elkarbizitzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak bide horietatik konpontzeko ahalegina gutxienez bitan egin bada, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea.

67. artikulua. Adiskidetzeari gertatu delako prozedura bertan behera uztea.

1. Adiskidetzetik gertatzen bada, eten egingo da prozedura. Hauek dira adiskidetzearen ezaugarriak:

a) Ikasleak erabili duen jokabidea elkarbizitzaren aurkakoa dela edo elkarbizitzari kalte larriak eragiten dizkiola onartzea eta, berariaz, urratu egin dituela eskola-elkarteko gainerako kideen eskubideak.

b) Barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.

c) Kaltea jasan duen pertsonak, edo, kasuan- kasuan, ikastegiko organo eskudunak barkamena onartzea.

d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

2. Adiskidetzeak ez du prozedura bertan behera utziko prozedura 61. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatuko diren neurriak.

68. artikulua. Kaltea konpondu delako prozedura bertan behera uztea.

1. Prozedura bertan behera utziko da elkarbizitzaren aurkako jokabideen eta elkarbizitzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako okerrak konpondu egiten badira, edo konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.

2. Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du etengo prozedura, baldin eta 61. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatuko .

69. artikulua. Jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik prozedura bertan behera uztea.

Prozedura bertan behera utzi ahal izango da zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzendu bada edo familia-eremuan zuzentzen ari bada. Ezingo da halakorik egin, jokabidea 61. artikuluan adierazitakoren bat baldin bada.

70. artikulua. Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea.

1. Prozedura ebatzi eta kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurriak baldintzapean etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetzealdia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta, interesduna adin txikikoa bada, haren lege-ordezkariek eskatuta, betiere ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela alde aurretik egiaztatuz gero.

2. Zuzendu beharreko jokabidea berriz gertatuz gero, berrererortzetat joko da, zigorra bertan behera utzita ere.

3. Arrazoi horiek direla medio OOGari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla jakinarazi egin behar zaie.

71. artikulua. Elkarbizitzarako konpromiso hezigarriak.

1. Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzetik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetzarako konpromiso hezigarria sinatuta; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu beharko dute.

2. Elkarbizitza-konpromiso hezigarrietan, behar bezala zehazturik eta denbora-koskak ere xehaturik, honako hauek jaso beharko dira: elkarbizitzari buruzko prestakuntza- jarduerak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aurreikusteko eta aldatzeko gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek zuzenean edo erakundeen, Ikastegiaren edo pertsona egokien bidez. Era berean, Ikastegiarekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak ziurtatu beharko dira.

3. Elkarbizitza-konpromiso hezigarriak ez betetzeak etendako neurri zuzentzaileak berehala aplikatzea ekarriko du.

XEDAPEN OROKORRAK

72. Artikulua. Elkarbizitzaren aurkako eta elkarbizitzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko prozedurak.

IV. kapituluaren jasotako bide alternatiboak erabiltzea ezinezkoa izan denean, elkarbizitzaren aurkako eta elkarbizitzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko kapitulu honetan araututako prozeduretako bat erabili behar da.

73. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna.

1. Ikasleak ikasgelan, ikastegiko beste eremu batzuetan edota ikastegiz kanpo daudenean, ikastegiko irakasle guztiek dute haien jokabide desagokiak berehala zuzentzeko eskumena ikasleak euren zaintza zuzenpean dauden bitartean.

2. Euren aurrean elkarbizitzarentzaren aurkakoa edo elkarbizitzarentzat larriki kaltegarria den jokabide bat gertatzen bada, irakasle guztiek dute eskumena, unean bertan, ikasleari ohartarazpena egiteko. Irakasleek, halaber, ikaslea zuzendariarengana, ikasketa-buruarengana edo une horretan ikastegian arduradun den zuzendaritzako kidearengana bidaltzeko eskumena dute, betiere, pertsonak edota objektuek kalteak jasatea ekiditeko berehala hartu beharreko neurriak bazter utzi gabe.

3. Zuzendaria da elkarbizitzaren aurkako edota elkarbizitzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak zuzentzeko eskumena duen organoa.

4. OOGa da Dekretu honek ezartzen dituen mugetan zuzendariak hartu dituen erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa.

74. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedura-epeak.

1. Kapitulu honetan arautu diren prozedurekin lotura duten ekintzak gauzatzeko epe guztiak eskola-egunetan adieraziko dira.

2. Ondorio horietarako, eskola-egunak honako hauek izango dira: astelehenetik ostiralera, irailaren lehenetik ekainaren hogeita hamarrera, oporraldikoak ez, beste baldin egun guztiak.

75. artikulua. Denbora igaro delako prozedurei ekiteko debekua.

Ondoko kasu hauetan, ezingo zaio inolako prozedurari ekin, ezta elkarbizitzarentzat desagokiak diren, kontrakoak diren edota elkarbizitzan kalte larriak eragin dituzten jokabideen berri izanda ere:

a) Elkarbizitzarentzat jokabide larriki kaltegarriak diren egite edota ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeita egun baino gehiago igaro badira.

b) Elkarbizitzaren aurkako jokabideak diren egite edota ez-egiteak gertatu zirenetik hirurogei egun baino gehiago igaro badira.

c) Elkarbizitzarentzat jokabide desagokiak diren egite edo ez-egiteak gertatu zirenetik hogeita egun baino gehiago igaro badira.

76. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea

1. Neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira:

a) Elkarbizitzaren aurkakoak diren edo bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideak zuzentzeko neurrien kasuan, erreklamazioak edo helegiteak jartzeko epea amaitu den unetik aurrera.

b) Jokabide desagokiak zuzentzeko zer neurri aplikatuko den erabakitzen den unetik aurrera.

2. Honako kasu hauetan ezin izango da neurri zuzentzailerik ezarri:

- a) Elkarbizitzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik ehun eta hogeiei egun baino gehiago igaro badira.
- b) Elkarbizitzaren kontrakoak diren jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik hirurogei egun baino gehiago igaro badira.
- c) Jokabide desagokien kasuan, hogeiei egun baino gehiago igaro badira.

77. artikulua. Ikastetxearen barruan jakinarazpenak nahiz erreklamazioak egiteko modua eta epea.

- 1. Dekretu honetan arautu diren prozeduren egintzei buruzko jakinarazpenak jakitera eman behar den egintza gertatu eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik egin beharko dira.
- 2. Kapitulu honetan arautu diren prozeduretan erreklamazioak jartzeko epea hiru egunekoa izango da.
- 3. Dekretu honetan araututako prozeduretan jaso diren eta hezkuntza-komunitateko kideei helarazi behar zaizkien jakinarazpenak nahiz zitazioak jasotzaileak mezua jaso duela argi jakiteko moduan igorri behar dira.

78. artikulua. Dekretu honetan arautu diren prozeduretako datu pertsonalak lantzeko, babesteko eta ezeztatzeko bidea.

- 1. Jokabide zuzenduei buruzko datuak dagokion ohiko edota ohiz kanpoko prozeduraren agirietan soilik ageriko dira. Datu horiek ez dira ikastegiko fitxategi edota erregistro iraunkorrera transferituko eta, maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzaren Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera zaindu eta aldi baterako beste ikastegi batera eraman ahal izango dira.
- 2. Edonola ere, Dekretu honek arautzen dituen prozeduretan sortu diren agiriak suntsitu egin behar dira. Horrela, elkarbizitzaren kontrakoak diren jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu zeneko ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira; eta, elkarbizitzari kalte larriak eragiten dizkioten jokabideei buruzko prozeduretako agiriak prozedura gertatu eta hurrengo ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira.
- 3. Prozeduraren izapide guztietan prozeduran parte hartzen duten pertsona guztien ohorearen, duintasunaren, intimitatearen eta irudi propioaren eskubideak babestu beharko dira, ikasle adingabeen kasuan batez ere.

79. artikulua. Erreklamazioak eta helegiteak.

- 1. Zuzendariak emandako ebazpenaren aurka, ikasleak, edo haren lekuan, gurasoek edo legezko ordezkoez, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute OOGean. Organo Gorenak erreklamazioa berrikusi ahalko du, 65. artikuluan ezarria denari jarraiki.
- 2. OOGaren erabakiaren aurka, ikasleak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio Hezkuntzako Lurralde Ordezkarari hiru egun balioduneko epean, erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- 3. Erreklamazio ezestearen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsua jar diezaioke Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurilaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Jaurilaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordeari, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

III. IDAZPURUA: ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

80. artikulua. Oinarri orokorrak

Euskal Eskola Publikoaren Legeko 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izateko duten eskubidea bermatze aldera, idazpuru honetan ezarri den berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko oinarri hauek ditu euskarri: publikotasuna, informazioa eta

gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

81. artikulua. Publikotasuna

1. Ikasketa-buruak bermatu beharko du ikasleek nahiz haien legezko ordezkariak Ikastegiko Curriculum Egitasmoa eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkioen eskura egongo den Egitasmoan ondoko hauek agertu beharko dute: arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta beroietan landuko diren oinarritzko gaitasunak.

2. Ikasketa-buruak, halaber, bermatu beharko du departamentu didaktikoek eta irakasleek publiko egiten dituztela, batetik, arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxienezko edukiak, bestetik, ebaluazio- prozedura nahiz ebaluazio-irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeak egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusi diren prozedurak.

3. Ikasketa-buruak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariak helduz zaiela.

82. artikulua. Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa

1. Ikasketa-buruak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatzeko dela. Zaindu behar du, halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerari nahiz eskola- errendimenduari buruzko informazio osoa dutela eskuartean.

2. Tutorearen eginbeharrak bazter utzi gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariak aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketa-buruak bermatu behar du irakasle guztiek eginbehar hori betetzen dutela.

3. Ikasketa-buruak ziurtatu behar du ikasleen irakasle-tutoreak beren taldeko ikasleen gurasoekin hiru hilabete behin bilduko direla. Bermatu beharko du, halaber, ikasleen gurasoen heren batek baino gehiagok eskatzen dituen bilerak egiten direla. Bilera horietan, goian aipaturiko alderdiak landuko dira, baita taldeko ikasleek alderdi horiek nola betetzen dituzten esan ere.

4. Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bidez igor daitezkeen informazioaz gain, tutoreak ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariak aipatu bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete, IIPn ebaluazio-bilerak egiteko ezarri den gutxienezko aldizkakotasunez. Gainera, hartu behar diren neurriak hartuko dira informazioa jaso behar dutenak jasotzen dutela ziurtatzeko.

83. artikulua. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

1. Ikasleek eta, hala egokituz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute.

2. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edota kalifikazioaren azalpen arrazoitua adierazi beharko du.

84. Artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

1. Garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioaren ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta beste ikasturte batez.

2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira.

3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egon daitekeen kasuetan.

85. artikulua. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa (ikus 7. Eranskina)

86. artikulua. Azken ebaluazioan eragina izango duten proba eta ariketa guztiak ikusteko prozedura

1. Ikasleek eta, ikasleak adingabekoak direnean, gurasoek edo ikasleen legezko tutoreek aukera izango dute azken ebaluazioan eragina izango duten proba eta ariketa guztiak ikusteko, horiek zuzendu ostean.

2. Ikasturtean zehar, azterketak edo ariketak banatu eta 5 laneguneko epe barruan eskuratu daitezke. Epe horretatik kanpo ez da eskaerarik onartuko.

3. Ohiko eta ez-ohiko deialdietan, erreklamazio epea amaitu ondoren ezingo dira ariketen eskaerarik egin. Epe horretatik kanpo ez da eskaerarik onartuko

4. Ariketak eskuratzeko eskaera egiteko, ikasleek eta, ikasleak adingabekoak direnean, gurasoek edo ikasleen legezko tutoreek, arrazoitutako idatzi bat aurkeztuko diote Zuzendariari, zein azterketa edo azterketak nahi duten edo dituzten eta zertarako nahi duten edo dituzten adieraziz. Idatzia idazkaritzan aurkeztuko da eta ondoren sarrera erregistroa emango zaio.

IES *PIO BAROJA* BHiko AJAtik ERATORRI ETA SORTU BERRIAK ZEIN ERABILERA ETENGABEA DUTEN ZENBAIT GEHIGARRI

[1go Eranskina](#) Arau orokorrak (laburpena). NM020102

[2. eranskina](#): Hutsegiteen eta gelatik kanporatzeen kudeaketa. DC020506

[3. eranskina](#): Eskolaz kanporako irteeratako arautegia. NM020301

[4. eranskina](#): Azterketetako protokoloa. NM010404

[5. eranskina](#): Tresna elektronikoei buruzko protokoloa. NM020105

[6. eranskina](#): Osasuna eta arriskuen-prebentziorako protokoloak. NM060901

[7. eranskina](#): Berrikusketa eta erreklamazio prozesua

[8. eranskina](#): Promozio eta titulazio irizpideak

[9. eranskina](#): Hainbat protokolo.

[10. eranskina](#): Ohorezko matrikulak. Berdinketa hausteko irizpideak.

[11. eranskina](#): Baremazio kasuan OOG-ko desentate irizpidea.

1go Eranskina (NM020102) IKASTETXEKO BARNE ARAUDIA

Araudi honen helburua elkarbizitza eta tolerantzia bermatzea da elkarbizitza eta adostasunaren bidez. Guztiok ezagutu, errespetatu eta bete behar ditugu oinarritzko arau hauek.

1.- KLASERA ETORTZEA

Klaseetara etortzea ikasleen eskubidea izateaz gain ezinbestekoa ere bada jakintzagai guztiak modu egokian ikasi eta behar bezala ebaluatu ahal izateko. Horregatik bertaratzea derrigorrezkoa da eta ez etortzea ez da justifikatuko.

AJAren 55 B) artikulua araberako justifikatuak izango dira soilik hurrengo kasuetan:

- Zuzendaritzak ulertzea osasun arrazoiengatik osasun zerbitzuetara bertaratzeko beharra izatea. Honek ez ditu barne hartzen norberak hautatutako eta alternatiba zuten bisitak (haginlariari bisitak, ohiko errebisioak...) ezta gaizkiegon arinak ere.
- Zuzendaritzak ulertzea legez derrigortutako tramite bati aurre egin behar izatea. Honek ez ditu barne hartzen norberak hautatutako eta alternatiba zuten bisitak (NAN berrikuntza, enpadronamenduak...)
- Zuzendaritzak ulertzea egon direla familian gertatutako gertakari larriak, hala nola, heriotzak, bat-bateko gaixotasunak... Honek ez ditu barne hartzen norberak hautatutako oporrak, ikaslearen erabakiz etxean gelditzea edota ikasten gelditzea.
- Ebaluazio probetan bakarrik justifikatuko dira:
 - Aldez aurretik INIKA bidez abisatutako, arrazoiutako eta zuzendaritzak onartutako hutsegiteak.
 - Egun osoko hutsegiteen kasuan, aldez aurretik abisatu ez bada, INIKA bidez tutoreari eta zuzendaritzari azaldu eta hauek onartutako hutsegiteak.
 - Momentuko hutsegiteen kasuan, non ikaslea eskolara etorri eta ebaluazio proban agertzen ez den, bakarrik justifikatuko da irteterako garaian atezaintzan abisua utzi badu eta egunean bertan INIKA bidez tutoreari eta zuzendaritzari abisatu eta hauek onartutako kasuak.
 - Arrazoiak atxikituta eramango dute:
 - Absentzia justifikatzen duen dokumentu ofiziala.
 - Dokumenturik ez badute, idatzizko arrazoiak zehatza ikaslearen izenarekin, galdutako ebaluazio probarekin, hutsegiteen justifikazioaren arrazoiarekin eta adin nagusia den sinatzailearen deitura, NAN eta sinadurarekin.

AJAko 55. h) artikulua araberako ez etortzearen ondorioak hauek dira:

- Ebaluazioan, ikasgaiaren %20ko hutsegiteak gaitzitzen ebaluaziorako eskubidea galdu eta ohiko deialdira joango da ikaslea. Erabakia INIKA bidez komunikatuko da.
- Ikasgaiaren hutsegiteek %20 gaitzitzen familiari komunikatuko zaio, 30% gaitzitzen idatzizko abisua entregatuko da eta 40% gaitzitzen eskolaz gaitzitzen ekintzetan parte hartzeko eskubidea galduko du. Erabakia INIKA bidez komunikatuko da.
- Kurtso guztiko hutsegiteek ikasgaiaren %20 gaitzitzen badute ebaluazio eskubidea galdu eta ohiko deialdira aurkeztu beharko da ekainean.
- Ebaluazio proben kasuan:
 - Proba egiteko eskubidea galdu eta atal horretan 0 izango du.

2.-ZAINZTA ORDUAK

Dagokien irakaslea falta den orduetan **ikasleak gelan egongo dira** zaintzako irakaslearekin. Egokia den kasuetan, ordea, ikasketa buruak aldatetako egin ahal izango ditu taldeen ordutegietan denbora ahalik eta gehien aprobetxatu ahal izateko. Zaintzako irakaslea etorri arte zain egon behar da, ez dago denbora tarterik, non une horretatik aurrera ikasleak, haien kabuz, gela utz dezaketenik.

Irakaslearen hutsegitea lehen orduan gertatuko balitz ikaslea etxean geratu ahal izango da eta azken ordua balitz ohi baino ordu bete lehenago irteten ahal izango da ikastetxetik. Bete ere, aldez aurretik ordezkariak ikasketa burutzarekin hitz egin beharko luke, jakina.

Errespetatzen ez duten ikasleei eta guardia-orduetan beren borondatez huts egiten dutenei, AJAren 56. artikuluan jasotako neurri egokiak aplikatuko zaizkie.

3.- ADIERAZPEN ASKATASUNA

“Ikaslearen eskubide eta betebeharren dekretuak” adierazpen askatasunaren eskubidea aitortzen du eta halaber, gogorarazten du eskubide honekin batera datorrela eskolako kide guztien arteko errespetua. Adierazpen askatasuna gauzatzeko bideak Eskola Kontseiluak erabaki ditu: Ikasleek sarrera nagusiko bi kortxoak erabili ahal izango dituzte iragarkiak, txartelak, pankartak, posterrak eta abar jartzeko. Institutuko gainontzeko lekuak (klaseak, pasilloak, hormak, ateak edota burdin hesiak) ezin dira horretarako erabili.

4.- TABAKOA, ALKOHOLA ETA SUBTANTZI EZ LEGALEN KONTSUMOA

Ikasleriaren eskubidea da jarduera akademikoak giro osasuntsuan burutu ahal izatea. Guztion ardura da ikastetxean **giro osasuntsua** ziurtatzea, beraz, indarrean dagoen legedia betetzeko debekatuta dago erretzea institutuko edozein tokitan (patioak barne). Klase batetik besterako tartean ezin da institututik irten erretzera. **DEBEKATUTA DAGO**. Era berean, ezin da alkoholdu edaririk kontsumitu, ezta legezkoak ez diren substantziak ere, eskola-esparru osoan.

5.-JANZKERA

Geletan debekaturik dago buruan zerbait eramatea salbu eta familiak hala eskatzen duen idatzi arrazoitua (adibidez, beloen kasuan bezala) eta beti ikastegiko zuzendaritzarekin baimenarekin. Janzkera ez da inoiz oztopoa izango programatutako jarduerak egiteko ezta segurtasun eza edo arrisku egoerak eragiteko ere.

Salbuespen gisa, Inauteriko ostiralean ikasleak mozzorro-jantziekin etorri ahal izango dira baldin eta hark jarduera akademikoaren garapen arrunta galarazten ez badu eta mozzorroak iraingarri edo desagokiak ez badira eskola-testuinguruan.

6.- TELEFONO MUGIKORRAK ETA BESTELAKO APARATU ELEKTRONIKOAK

Institutuan halakoak erabiltzea debekatuta dago. Gelan erabiliz gero irakasleak aparatua jasoko du eta ikasketaburuari emango dio. Kasu horretan, bost eskola-egunetan, erabiltzeko moduan dagoen telefonoa atezaintzan entregatu behar dela dioen araua aplikatuko zaio, eta familiari jakinaraziko zaio (AJAren protokoloa kontsultatu).

7.- INSTALAZIOEN ERABILERA ETA MANTENTZE-LANAK. KALTEEN KUDEAKETA

Ikastetxeak dituen ekipamendu eta instalazioak behar bezala erabili behar dira, urtero-urtero egiten dira eta behar bezala zaintzeko derrigorrezko konponketak. Talde bakoitzaren ardura da gelako altzariak garbi eta egoera onean edukitzea. Hori talde guztietan bermatzeko, arduradunak eta ikasgelak berrikusteko txandak ezarriko dira.

Erabilera desagokiak sortutako kalteak gertatzen badira, konponketa gastu horiek kaltea eragin dutenen bizkar joango dira. Eskola Kontseiluak erabiltzaile guztiak hezi nahi ditu ondasun publikoak mantentzen eta errespetatzen. Neurri honekin bi helburu dira lortu nahi direnak: bata, guztion ardura areagotzea eta bestea, ikastetxeak behar baino diru gehiago ez gastatzea konponketatan eta dirua behar den kontuetarako bermatzea (liburutegia, irteerak...).

Hona hemen kalteak sortzen direnean erabiltzen den prozedura:

- Apurketa ikasle batek egin badu, berak ordainduko du.
- Apurketa gela batean egin denean eta egileak ardura hartzen ez duenean, talde osoak ordainduko du.
- Apurketa leku komunetan egin denean (laborategiak, pasilloak, komunak, patioak...) espazio horiek erabiltzen dituzten guztiek ordaindu beharko dute.

Gelak erabiltzeko guztiz prest egoten dira kurtso hasieran, baina edozein akats detektatu ahal izateko eta nola erabiltzen den jakin ahal izateko talde guztiek gelako eta zerbitzu komunetako inbentarioa egin beharko dute. Dokumentu horren arabera baloratuko dira kurtsoan zehar eta batez ere kurtso bukaeran, ikasturtean eragindako kalteak.

Ardura hori duen irakasleak eta ikastetxeko idazkariak daramate kalteen gestioa: sortutako kalteak kontrolatzen dituzte, arduradunak bilatzen dituzte, kalteak konpontzeaz arduratzen dira eta ordainketaren epeak jartzen dituzte. Ikasleek argibideak eskatu edo erreklamazioak egin nahi badituzte, taldeko tutorearengana jo dezakete. Ez badira konforme geratzen, aipatutako tutore edota ikastetxeko idazkariarengana jo dezakete.

8.- JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLAZ KANPOKOAK

Jakintzagai guztietan programatzen dira ikasturte bakoitzerako, curriculum osatzeko. Jarduera osagarrietan asistentzia derrigorrekoa da ikasle guztientzat.

Bai ikastetxeak eta baita guraso elkarteak berak (elkartea balego) ere begi onez ikusten ditu ekintza hauek eta bere ordainketan parte hartzen du. Ekintza osagarriak doakoak dira.

9.-LIBURUTEGIA

Institutuko baliabide didaktikoen kokagunea da. Bertan liburuak, CDak DVDak erabil daitezke eta denbora baterako utzi ere egiten dira. Ikasteko eta Internetera sartzeko ere erabil daiteke **KLASE ORDUETATIK KANPO**.

Irekita dago goizeko 9.00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara taldeka nahiz bakarka lan egin ahal izateko.

10.-KLASEETARA EZ ETORTZE KOLEKTIBOA

Aipatutako dekretu berberak aitortzen du ikasleriak kolektiboki klaseetara ez etortzeko duen eskubidea zirkunstantzia berezietan. Ikastetxeak eskubide hori errespetatzen du, baina jarrera serioa eta arduratsua eskatzen du klase orduak galtzea dakarren edozein erabakiren aurrean. "Ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera Araudiak" eta Eskola Kontseiluak zehazten dute kasu hauetan **guztiok bete beharreko prozedura**:

1.- Egon daitezken erakundeek, taldeek edo pertsona fisikoek euren berri emango diote ikastetxeko zuzendaritzari ikasturtearen hasieran eta euren bozeramaileak izendatuko dituzte.

2.- Deialdia egiten duten erakundeetako bozeramaileek edo deialdi ofizial bat aurkeztu nahi duten bozeramailerik gabeko ikasleek zuzendariarengana ikasketaburutzara joko dute deialdiaren berri emateko. Une horretan, 50 sinadurak eta deialdi ofiziala atxekituko dute. Pausu guzti horiek, 48 ordu baino lehen egin behar dira.

3.- Deialdiaren nondik norakoak Ikastetxeko zuzendaritzarekin adostu ondoren, ikasketaburuak ordezkariak bilduko ditu eta deialdia egiten dutenek proposamena aurkeztuko diote ordezkarien batzordeari. Batzordeak **sekretepeko bozketan eta gehiengo absolutuz (ikastetxeko ordezkari guztien erdiak gehi boto bat gehiagoz) proposamena onartu edo baztertu egingo du**. Ordezkarien Batzordeak onartzen badu, ondoren delegatu bakoitzak proposamenaren berri emango dio bere taldeari eta aldeaz aurretik ikasketaburuarekin finkatutako orduan egingo du talde bakoitzak gelan sekretepeko bozketa klase horretako irakasleren aurrean.

4.- Bozketa bukatu ondoren ordezkariak egingo du boto kontaketa eta honako datu hauek zehaztuko ditu dagokion aktan:

- bozketa egiterakoan aurrean dagoen ikasle kopurua
- bozketan parte hartzen duen ikasle kopurua
- bozketan parte hartzen ez duen ikasle kopurua (desbinkulatuak)
- proposamenaren alde dagoen ikasle kopurua
- proposamenaren kontra dagoen ikasle kopurua
- boto zurien kopurua
- boto baliogabeen kopurua
- taldeko delegatuaren sinadura eta klase horretako irakaslearena

Delegatuek aktak ikasketaburuari emango dizkiote, hark egingo du azkeneko kontaketa eta emaitzen berri emango du.

5.- Geldialdi edo greba deialdi bat onartu ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

1. Bozketan ikasleriaren %50ak parte hartu beharko du, gutxienez, goizeko edo gaueko txandari dagokion neurrian.

2. Lehen baldintza bete ondoren, deialdia GEHIENGO ERLATIBOZ onartuko da, hau da, bozketan parte hartu duen ikasleriaren erdia gehi bat.

Programatutako irakas-jardueretan (klaseak, frogak, aurkezpenak, jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak, irteerak, kontrolak, azterketak) aritzea aukeratzen duen ikasleriak ez du deialdian parte hartuko ezta bozketan lotuko ere.

6.- Bozketan parte hartu duten ikasle guztiek onartu eta errespetatu beharko dute emaitza. Gehiengoak klaseetara ez joatea erabaki badu ikasleek ezin izango dute geratu ikastetxean. Jakina, desbinkulatuak egun horretako klaseak izango dituzte. Galdutako eskola orduak ez dira kontuan hartuko falta bezala, baina hutsegiteen partean halaxe jasoko dira eta familiei jakinaraziko zaizkie.

7.- Azaldutako baldintzetan onartutako ez etortzea gertatzen bada, egun horretarako programatutako jardueretan aldaketarik ez dela egongo gogoratzen da (klaseak, frogak, aurkezpenak, jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak, irteerak, kontrolak, azterketak...) beraz, beste egun batean egiteko aukerarik ez da izango

8.- Bozketan ateratzen den emaitza onartzen duen ikasleari, AJA hontako 50 eta 56 artikuluetan jasota dagoena aplikatu halko zaio,

11.- IKASLEEN POSTA KORPORATIBOEN ERABILERA-ARAUAK

Ikastetxeak posta elektronikoko kontu bat jartzen du ikasleen eskura, domeinu propio baten barruan (@piobaroja.eus). Jarraian, mezu elektronikoko horiek erabiltzeko zenbait alderdi eta arau zehazten dira.

a) ALDERDI OROKORRAK

- Posta-kontua IES PIO BAROJA BHI ikastetxearena da, eta, beraz, ikastetxearen arauen eta indarrean dagoen legediaren mende dago.
- Posta elektronikoa ikasle bakoitzari esleitzen zaio, eta ikastetxeak posta-kontu hauen bidez ezartzen dituen jardueretarako erabili ahal izango dute.
- Posta-kontuak ikasleen, irakasleen eta familien arteko komunikazio-**erabilera baino ez du izango, baina erabilera hezitzailea baino ez da izango**, eta hainbat arlotan didaktikoki aplikatzeko.
- Institutuak beretzat gordetzen du mezuren baten edukia eteteko eta emateko edo ezagutarazteko eskubidea, legeko prozesuak betetzeko beharrezkotzat jotzen badu.
- Erabilera-arau horiek betetzen ez badira, ikastetxeak ikastetxeko AJAren bat etorritik jartzen dituen zehapenak bete beharko dira.

b) POSTAREN ERABILERA

Oso garrantzitsua da jarraian zehazten diren jarraibideei jarraitzea:

- Ikasleak arduratuko dira esleitutako kontuen trafikoz eta informazioaren edukiaz.
- Hutsegite larria da baimendu gabeko pertsonen posta elektronikoko kontua ematea eta eskaintzea. Izendatutako pertsonak eta haren legeko tutoreek baino ez dute erabiliko kontua, eta ezin da transferitu.
- Posta elektronikoa tresna bat da Classroom, Meet, Drive, Dokumentuak, Kalkulu-orriak, Aurkezpenak eta ikastetxeak administratutako google-ren workspace eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako ikastetxeak dituen aplikazioak ikastetxeko pertsonen artean hezkuntza-erabilerrako. Ez da helburu pertsonaletarako erabili behar, hala nola kanpoko webguneetan, sare sozialetan, foroetan eta abarretan erregistratzeko.
- Debekatuta dago hirugarrenen pribatutasunari eta moralari eragiten dion informazioa transmititzea.
- Debekatuta dago erakundeaz kanpoko pertsonekin harreman edo banaketa-zerrenda masiboak partekatzea, xede administratibo edo akademikoekin zerikusirik ez duten propagandak, eskaintzak, negozio pertsonalak, publizitate-oharrak edo bestelako informazioa bidaltzeko.
- Posta elektronikoko kontuek ikastetxeko ikasleen matrikularen indarraldiaren arabera iraupena izango dute. Ikasleek ikasketak ikastetxean amaitzen dituztenean, kontua abuztuaren 31ra arte (edo ikastetxean baja eman eta bi hilabetera arte) mantenduko da, ikasleak bere jabetzakoak diren artxiboak berreskuratu ahal izan ditzan. Denbora hori igarotakoan, kontua ezabatuko da.

(1) GEHIENGO ABSOLUTUA: aldekoen boto kopuruak ikastetxean matrikulatutako ikasle kopuruaren erdia baino bat gehiago izan beharko du. Emandako botoen erdia baino bat gehiago ez da gehiengo absolutua, gehiengo erlatiboa baizik eta hori ez da nahikoa institutuko Antolamendu eta Jarduera Araudiaren arabera.

(2) Jarduera hauetakoren bat (klaseak, azterketa partzialak, ebaluazio azterketak, ahozko aurkezpenak, jarduera osagarriak, irteerak, e.a.) egin nahi duen ikasleak aski izango du bozketan parte ez hartzearekin.

2.Eranskina (DC020506) IKASLEEN JOKABIDE DESEGOKIEN KUDEAKETA (AJAren arabera)

HUTSEGITEAK	EGINBIDE-ZERREDA
Ebaluazioan %20ko huts-kopurua	Hainbeste hutsen egileak ebaluazio jarraitua (ebaluazio azterketa eta berreskuratzearena) galduko du. Ebaluazio hori maiatzeko nahikotasun-frogan gainditu ahal izango du.
GURASOEI JAKINARAZPENA	Inika aplikazioa erabiliko da familiei jakinarazteko. Horretarako, informazioa institutuaren webgunean aurkituko dute: Familiek ematen zaien gako pertsonalarekin sartu eta ikaslearen hutsegiteak kontsultatu ahal izango dituzte.
Justifikatu gabeko 20 BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEA	IKASKETA-BURUAK eta TUTOREAK: Neurri zuzentzaileak: - Ikas jarduerak edo lanak ikastegian arratsaldeetan. - Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea. - Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea. - Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastegira etortzeko eskubidea etetea. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun. Ikasketa buruak hartutako neurriaren berri gurasoei emango die eta egindakoa idatziz jasoko du.
Justifikatu gabeko 30 BIZIKIDETZARENTZAT JOKABIDE LARRIKI KALTEGARRIA	ZUZENDARIAK eta IKASKETABURUAK Familia eta ikaslea, orientatzailearekin bilduko dira
Beste neurri batzuk	Ikasturte batean zehar hutsegite-kopuru handiagatik goian aipatutako eginbidea aplikatu zaion ikasleak, hurrengo ikasturtean, matrikula egin baino lehen, eskoletara egunero etorriko den konpromisoa hartu beharko du. Eginbide hau familia aurrean dela gauzatuko da eta berriro ere huts egiteak ebaluazio jarraitua izateko eskubidea galtzea ekarriko dio.
Justifikazioak	Ez dira justifikatuko huts egiteak orokorrean eta bakarrik justifikatuko dira AJAren 55 b) artikuluan dionearen arabera.

GERTAKARIEN KUDEAKETA

Ikaslea Ikasketa-buruarengana joango da. Ikasketa-buruak ikaslearen alegazioak entzungo ditu eta jokabidea baloratuko du, horren arabera dagokion neurri zuzentzaileaz ohartaraziko du. Gertatuari buruzko txostena idatziko da eta irakasleak, ikasleak eta ikasketa-buruak sinatuko dute. Ikasketa-buruak familiari jakinaraziko du.

3. Eranskina (NM020301) ESKOLAZ KANPOKO IRTEERATAN IKASLEEK BETE BEHARREKO PORTAERA-ARAUTEGIA

Dokumentu honen helburua da ikasturtean zehar eratzen diren irteeratarako ikasleek bete behar duten oinarritzko portaera-arautegi bat finkatzea. Bisita-irteera hauek xede pedagogiko jakinak dituzte eta portaera-jarraibide batzuk behar dituzte, helburuak betetzeko eta hezkuntza sozialean ere trebatzeko, ikasleak talde bateko kide baitira eta, hainbestez, edozein egoeratan, portaera-arau batzuk bete beharra baitago.

Horiek horrela, proposamenak irteeratan izaten diren ekintzetarako jarraibideak zerrendatzen ditu:

1. PUNTUALITASUNA. Lehenengo betebeharra da, irteera- eta itzulera-orduetan, eta gauza bera jarduerak berak eragindako gorabeheratan, alegia, atsedendietan, jatorduetan, museo edo bestelako aretoetako sarreretan...

2. AUTOBUSETAKO LEKUEN OKUPAZIOA. Irtenaldirako autobusak bi edo gehiago direnean, bidaiaren ardura duten irakasleek esandako lekuetan eseriko dira ikasleak, lekuen banaketa jarduera beraren izaerak edota antolakuntzaren era bateko edo besteko premiek (bisitaren ordena, mailak...) mugatua etorriko baita.

3. BIDAIAK DIRAUEEN BITARTEAN, segurtasuna edo bestelakorik xede dutela, gidariek edo/eta irakasleek emandako arauak beteko dituzte ikasleek, arretaz zainduz portaera txukunaren alor guztietan oinarritzko arauak, alegia, higienean, garbitasunean, autobuseko tresnak zaintzen. Bidaia luzeetan, nazio-lurraldean edo atzerrian, eta ikasle-trukeetan 23:00tik aurrera isiltasuna eskatuko da guztien atsedena errespetatzeko.

4. HOTELETAN OSTATATZEAN. Irakasleek zehaztutako ordutik aurrera ikasleak haien geletan geldituko dira, guztien atsedena errespetatuz.

5. OINEZKO IBILBIDEAK irteeraren ardura duten irakasleek emaniko argibideen arabera egingo dira betiere, bidegurutzetan eta bestelako gorabeheratan zirkulazio-arautegia errespetatuz, une oro arrisku egoerak sahiestuz eta beti beste ibiltariekin eta lekuarekin gizalegearen oinarritzko arauak betez.

6. MUSEOTAN, erakusketa-aretoetan, erakundetan... gorago aipatutako gizalegezko jokabide orokorra eta unean uneko egoerari egokitua erabiliko da. Unean uneko jokabideaz zailtasunak sortuko balitz, irakasleak emango ditu argibideak, alegia, nola sartu leku jakin batera, leku edo erakunde jakin batean nola jokatu, taldeari argibideak ematen ari zaion pertsonarekin, edota erakundeko beste batzuekin izan beharreko arreta eta begirunea, instalazioak eta erakundeko barne arautegia errespetatzea, bisitatzen den lekuan hartzen den "egoteko jarrera".

7. IKASLE TRUKEAK: ikasleek HARRERA EGITEN DUTEN FAMILIEKIKO errespetua eta arreta erakutsiko dute momentu oro, hau da, ordutegiak bete, etxeko ohituretara egokitu eta adiskideen familiek egindako plan guztietara egokitu. Bertan parte hartzen duten ikasleek ezin izango dute bere kabuz inongo planik egin edo haien nahia inposatu harrerako familiei edo ikasleei; trukearen ardura duten irakasleek ezagutu eta baimendu beharko dituzte ikasleen planak. Edozein arazo sortuko balitz (bizikidetzatza, egokitzea) egokitu zaion ikasle nahiz familiarekin, irakaslea jakinaren gainean jarri beharko du

8. ATZERRIKO IKASLEEN HARRERA. Egun horietan garrantzitsuena adiskidearekin harreman pertsonala eta familiarterkoa zaintzea da. Adin tartea (atzerriko batzuk 15 urte besterik ez dute izaten) eta ohituren arteko aldea kontuan hartuz GAUEKO IRTEEREI dagokionez, taldearen planak mugatuta egon beharko dute, familiek zehaztutako dituzte irakasle arduradunen laguntzarekin.

9. TABAKOA, ALKOHOLA, DROGAK. Adingabeek lege dute guztiz debekatuta horien kontsumoa, beraz, egoeraren arabera, bizikidetzatza larriki kaltetzen duten jokabideetat hartu ahal izango dira.

10.- JUSTIFIKATU GABEKO EZ BERTATATZEA ikasleak eskolaz kanpoko jarduera behar bezala justifikatu gabe huts egiten badu, jarduera horren gastu ekonomikoa bere gain hartu beharko du.

Arau horiek ez betetzeak hainbat neurri zuzentzaile aurrera eramatea ekarriko du ikaslearen portaeraren arabera: jokabide desagokoa, bizikidetzaren aurkakoa edo bizikidetzatza larriki kaltetzen duena AJAK definitu duen bezala. Har daitezkeen neurri zuzentzaileak: ikaslea ahoz ohartarazi, gurasoak jakinaren gainean jarri, ikaslea jarduera guztietatik at utzi, fidantza kendu, ikaslea etxera bidali (ikaslearen familiek ordaindu beharko lituzkete horrek guztiak sortarazitako gastuak)

4. Eranskina (NM010404) Azterketen protokoloa, ebaluaketa egunetan, ohiko zein ez-ohiko deialdietan.

Hona hemen ebaluazio-azterketa arruntetarako eta, agian, baita maiatzeko eta ekainekoetarako ere, baliagarri izan daiteken protokolo-jarraibidea:

- Azterketen iraupena 90 minutukoa izango da.
- Azterketa hasi eta 15 minutura edo gehiagora agertzen den ikasleari ez zaio azterketara sartzen utziko. Azterketara berandu iristen den ikasleak ez du denbora-gehiagarririk izango, ondorioz, azterketa 90 minutuak betetzen direnean entregatu beharko du, beranduenik ere.
- Ebaluazio-azterketarako hutsa behar bezala zurituri eta egiaztaturik duen ikasleak egin ez duen azterketaren baliokide (iraupenean, kalifikazioan, etab) izango den beste bat egiteko aukera izango du eta egin ere berreskurapenarekin batera egingo du. Azterketa hori gaindituko ez balu, irakasleak erabakitako egunean beste azterketa bat egiteko aukera izango du. Ebaluazio jarraia egiten den irakasgaietan irakasleek jarriko diote egoera horretan aurkitzen den ikasleari azterketa egiteko eguna eta ordua, arratsalde batean. Azterketa hori ebaluaziokoaren baliokide-baliokidea izango da. Behar bezala zuritu eta egiaztatu gabeko juskazio bat bera ere ez da onartuko, aipatu diren ondorioetarako.
- Azterketa-gelatik inork ere ez du irtetzeko baimenik izango harik eta azterketa hasi denetik 20 minutu igaro diren arte.
- Azterketa 90 minutuak bete baino lehen bukatu duen ikasleak ezingo du ez gelan ez korridoretan egon, azterketa egiten ari direnei trabarik ez egiteko. Arau hau betetzea guzti-guztion ardura da.
- Azterketa-bezperan ikasleek mahaietan duten tresneria guztia etxera eraman beharko dute, mahaiak garbi-garbi utziz eta irakasle zaintzaileari lana erraztuz. Azterketa-geletan mahai-tarteak eta pasabideak inongo trabarik gabe egon beharko dute, zaintzailea, eragozpenik gabe, atzera eta aurrera ibiltzeko moduan, bere zereginean. Ondorioz, ikasleek eskola-materialez beteriko motxilak eta boltsak gelaren aurreko aldean, harbelpean utziko dituzte. Mahi gaineen azterketa egiteko behar-beharrezkoa baino ez dute izango.
- AIAk jasotzen duen legean, edozein era dela medio azterketa kopiatzen "harrapatutako" ikasleari azterketa berehalakoan kenduko dio irakasle zaintzaileak eta azterketa bukatu ondoren, irakasle titularra jakinaren gaineen jarriko du. Irakasgai horretan ikasleari zeroa emango zaio.
- Azterketa edo edozein ebaluazio tresna burutzeko, IA edo bestelako baliabide ez-baimendu bat erabili denaren zantzuak dauden kasuan, irakasleak mintegiarekin eta zuzendaritzarekin kontrastatuko du eta ikasleari froga baliogabetu, berriro eginarazi edota beste moduan ebaluatuaraziko zaio.
- Ebaluazio-azterketako edota maiatzeko edo ekaineko nota edota hutsegite-konpuru handiagatik ebaluazio-eskubidea galtzea dela eta erreklamazioaren bat izango balitz, ikastetxeko AIA izango da erreferentziatzko jarraibidea.
- Neurri hauek guztiak onartzen diren unetik aurrera bete beharrekoak izango dira, jadanik indarrean direnekin batean.

Errekuperazio-azterketak

Ikasketaburutzak 1. eta 2.ebaluazioetarako errekkuperazio egutegi bat prestatuko du. Egutegia egiterakoan kontuan izango da egun horietan aldeztu aurretik programatutako beste iharduerarik ez egotea (klastroa, ebaluazio saioak, gaintitugabekoen azterketak....)eta ahal den neurrian egun berean goizean eta arratsaldean azterketak ez egoteko ahaleginak egingo dira. Azterketa hauek emaitzak ematen direnetik hurrengo hiru asteetan egingo dira. Ikasketaburutzak egutegia aditzera emango du ebaluazio bakoitzaren egutegi ofiziala argitaratzearekin batera eta derrigorrean bete beharko da.

5. Eranskina (NM020105) TRESNA ELEKTRONIKOEI BURUZKO PROTOKOLOA

Guztiz debekaturik dago klase orduetan sakelako telefonoa zein beste edozein motatako tresna elektronikoa ikastegi barruan erabiltzea eskola-orduetan, bakarrik erabil daiteke irakaslearen begiradapean eta helburu akademikorako. Liburutegian, unean uneko irakaslearen ardurapean, banaka entzuteko aukera eskaintzen duten musika-erreproduzitzaileak erabili ahal izango dira.

Aipatu tresnak ikastegira ez ekartzea gomendatzen da baina, ekarriko balira, **itzalita eta motxilan edo takillan gordeta egon beharko dute**. Ikastegia ez da inoiz tresna horietakoren bat galdu edo lapurtu izanaren erantzule izango.

Premia larria balitz, zuzendaritzak oniritzita, unean uneko salbuespena baimenduko da, horretarako eskabidea idatziz eta arrazoiak taldearen tutoreak bideratu ondoren.

Arau hau haustea jokaera desagokitzat, jotzen da. Irakasleak ikasleari tresna kenduko dio, Ikasketaburutzan entregatuko du eta txostena beteko du. Ikasketaburuak eta gurasoei abisatuko die.

Funtzionamenduan dagoen telefonoa goizero atezaintzan eman beharko du, eta eskola-eguna amaitzean jasoko du, 5 eskola-egunetarako.

Tresna hauen (eskuko telefonoa, smartwatch eta edozein motatako beste edozein gailu erreproduktore) erabiltzea azterketa batean kopiatzeko **elkarbizitzaren aurkako jokabideetatik** joko da. Gertatuz gero, **irakasleak tresna kenduko dio eta azterketa baliogabetuko du**. Dagokion txostena ikasketaburutzan ireki ondoren **tresna 5 egunerako kenduko zaio ikasleari**. Irakasleak **ohartarazpen idatzia** jasoko du.

Aipatutako jokabideetakoren batean behin eta berriro ikasturtean huts egiteak **elkarbizitzaren aurkako jokabideetatik** edo **elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokabideetatik** jotzen den gertaeraren inguruabarrek erabakiko dute. Beraz, AJAn agertzen diren dagozkien neurri zuzentzaileak hartuko dira.

Inoiz premiaren bat sortuko balitz ikastegiko telefonoak ikasleen eta haien familiakoen eskura egongo dira.

6.Eranskina (NM060901) OSASUNA, BIDEKO SEGURTASUN-ARAUAK ETA ARRISKUEN-PREBENTZIORAKO PROTOKOLOAK

I. kap. Ikasleen osasun arazoen aurrean jarraitu beharreko protokoloa.

- a.- Familiak edo tutoreak zuzendaritzari adieraziko dio zein den ikaslearen osasun arazoa; horretarako, dagokion mediku-agiria aurkeztu behar izango du ; bertan, osasun arazoa azaltzeaz gain, eskola ordutegian osasun arreta izateko beharra ere adierazi behar da. 1. eranskina. Ikaslearen fitxa.
- b.- Ikasle baten osasun arazo baten aurrean ikastegiko zuzendaritzak dauden baliabideekin arazoari aurre egin ezin izango ez balu, ikastetxeari dagokion osasun lurraldeko zuzendariarekin harremanetan jarriko da eta honek erabakiko du zein diren hartu behar diren neurriak ikasleari behar duen laguntza emateko.
- c.- Osasun arazoak direla eta, behar bereziak dituzten ikasleen kasuetan, alegia, sindromeak, minusbaliotasun edo beste arazoak eta aldez aurretik diagnostikatu direnak eta kasu batzuetan DBHn trataera berezia izan dutenak, hauen jarraipena Orientazio departamentuari dagokio.
- d.- Osasun arazoengatik une-uneke hutsegiteak gertatzean, familiek zuritu beharko dituzte; horretarako, dagokion agiria erabili behar izango dute eta irakasle eta tutoreari eman beharko diete. Medikarenera joaten badira, medikuak agiria egin beharko du. Osasun arazoengatik ikasleak azterketak egin ez baditu, medikuaren agiria ekarri behar izango du, institutuko PCCren arabera.
- e.- Osasun arazoengatik egun askotan falta badira, matrikula baliogabetzeko aukera badago. Hala agertzen da 2010eko iraileko 9.aren ebaluazio dekretuan. (4. artikuluan)
- f.- Gorputz hezkuntza mintegiko ikasgaien kasuetan , osasun arazoak dituzten ikasle batzuen kasuetan, curriculum-ari egokitzeko egin behar diren egokitzapena egiteko dagokion mediku-agiria beharrezkoa da ; hau, mintegiko programazioan ikasturte hasierako zirkularrean agertzen den arabera egin behar da.

II. Kap. Istripu edo gaixotasunaren aurreko jokabidea.

- a.- **Eskola orduetan ikasle batek ondoeza, larritasun edo istripu bat izanez gero, zuzendaritza taldeak, irakasleek eta zaintzako irakasleek laguntza emango diote ikasleari.**
- b.- Ondoeza arina izanez gero, familiari ikaslearen egoeraren berri eman ondoren bila etortzeko eskatuko zaio, edo, bestela, baimena ematen badute, etxera joateko baimena emango zaio.
- c.- Beste egoerei aurre egiteko, berehala 112ra deitu behar da eta familiari esan behar zaio. Honelako kasuetan ikastetxeko idazkaritzan istripu agiria bete beharko da eta istripu eta gertakarien txostena (MD020317) eta behar diren agiri guztiak egin beharko dira.
- d.- Institutuko atezaintzan botika kutxa dago; horretan, oinarrizko materiala dago eta familiak baimena ematen badu, eskatzen duenaren esku dago. Bidaia guztietan ere oinarrizko botika kutxa eramaten da.

III. kap- Arrisku egoeren prebentzioa

- a.- Familiek baimena sinatuko dute, non atsedendietan eskola gunetik kanpo ateratzeko baimena emango dieten; era berean, programatutako osagarri jardueretan parte hartzeko, , ez agertze kolektiboa gertatuz gero, ikastetxetik alde egiteko, ekintza batzuetara bakarrik joateko eta ikasle truke eta eskola bidaietan parte hartzeko baimena ere bai. (MD020308)
- b.- Eskolaz kanpoko eta osagarri jardueretan parte hartzen duten ikasleek oinarrizko arauak onartu ez ezik, arrisku egoerak sahisteko konpromisoa ere sinatuko dute. (MD020309).
- c.- Osasun arazoak direla eta, familiek beharrezko informazioa emango dute, alegia, elikagarri alergia, edo beste eratakoak, gaixotasun kronikoak, agindutako medikazioa eta medikazioa emateko baimena.
- d.- **Familiak beharrezkoa den informazioa eta dagokion baimena eman ezean, irakasleek ez dute inolako erantzukizunik izango.**

IV. kap- Segurtasuna

- a.-Ikastetxean ebakuazio plana dago. Plan hau eskola elkarteko partaide guztiek ikasturte hasieratik ezagutzen dute
- b.- Urtero ebakuazio simulakroa egiten da; honetarako, bereziki izendatutako osasun eta segurtasuneko tutoreari dagokio simulakroa prestatzea eta koordinatzea .
- c.- Ikastetxean bideko segurtasuna bermatzeko arau hauek ezarri dira:
 - Ate nagusitik bakarrik oinezkoak sar daitezke.
 - Kotxe eta motorrak ikastetxeko alboko atetik sartuko dira; hau sartzeko eta ateratzeko orduetan irekita egongo da. Gainerako orduetan bakarrik urrutiko aginte duten irakasleek sartu edo atera ahal izango dira.
 - Horretarako bereziki egokitutako lekuetan bakarrik aparka daiteke.

7. Eranskina **Berrikuspen- eta erreklamazio-prozedura**

1.A.- Ikasturtean (ebaluazio ez ofizialak, kalifikazio partzialak)

Lanak, ariketak eta proba ebaluagarriak **ebaluazioa eta kalifikazioa egin duten pertsonen** edo horien legezko ordezkariak berrikusiko dituzte.

Lan, ariketa eta proba ebaluagarriak eta kalifikazio partzialak (ebaluazio ez-ofizialak) berrikus daitezke, baina **ezin da horiei buruzko erreklamaziorik aurkeztu.** (dokumentua: **AZTERKETA BERRIKUSTEKO IRAKASLEARI ESKAERA**)

Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta ebaluazioa, mailaz igotzea eta, hala badagokio, Oinarritzako Hezkuntzako eta Batxilergoko titulazioa arautzen dituen Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko Aginduari 18. artikuluan adierazten den bezala:

Berrikuspen prozedura.

1. – Ikastetxeek beren antolaketa- eta funtzionamendu-araudian ezarriko dute zer prozedura bete behar den ikasleen ikaskuntza-prozesuan ikasturtean zehar kontuan hartzen diren lan, ari- keta eta proba ebaluagarriak berrikusteko. Ikastetxeek berrikuspen hori egiteko prozedurari buruz beharrezkoa den informazioa eman eta zabalduko dute

2. – Lan, ariketa eta proba ebaluagarriak ebaluazioa egin duten pertsonen edo horien legezko ordezkariak berrikusiko dituzte. Lan, ariketa eta proba ebaluagarriak berrikus daitezke, baina ezin da horiei buruzko erreklamaziorik aurkeztu. **Akta ofizialetan agertzen diren azken kalifikazioak eta mailaz igarotzeko edo titulua lortzeko erabakiak soilik erreklama daitezke.**

1.B.- Ikasturte-amaieran (ohiko deialdia eta ez-ohiko deialdia)

Akta ofizialetan agertzen diren azken kalifikazioak eta maila igarotzeko eta/edo titulua lortzeko erabakiak **soilik erreklama daitezke.**

Erreklamazioa aurkeztu nahi duenak nahitaez bete beharko du atezaintzan emango zaion inprimakia, eta ezarritako epeetan entregatu beharko du:

PIO BAROKA BHI Ikastetxeak azken kalifikazioak **berrikusteko** honako prozedura jarraituko du:

I.- **Berrikuspena eta erreklamazioa:** Irakaslearen aurrean

Ikasleek edo haien legezko ordezkariak **bi lanegun izango dituzte** azken kalifikazioen berrikuspena eta haien aurkako barne-erreklamazioa egiteko.

Berrikuspena ebaluazioa eta kalifikazioa egin duten pertsonen edo horien legezko ordezkarien aurrean egingo da. Berrikuspena ezin da izan kalifikazio kuantitatibo edo kualitatiboa jartzea bakarrik; aitzitik, ikasleak egindako huts edo okerrak adierazi ere egin behar dira, edo kalifikazioa arrazoitu. Eta amaitzeko, **kalifikazioa mantentzeko edo aldatzeko buruzko erabaki arrazoitua eman beharko da.** (dokumentua: **AZTERKETA BERRIKUSTEKO EDO/ETA AZKEN NOTA ERREKLAMATZEKO IRAKASLEARI ESKAERA**)

Bi laneguneko epetik kanpo aurkeztutako erreklamazioak automatikoki ezetsiko dira.

Berrikuspena errazago egiteko, azken kalifikazioekin batera (ohikoak eta, hala badagokio, ezohikoak) jakinaraziko dute irakasleak zer lekutan eta ordutan egongo diren ikasleen eskura. Normalean mintegia edo/eta irakasle gela.

II.- Barne erreklamazioa: Zuzendariaren aurrean. Irakaslearen aurkako **barne-erreklamazioa**. **Zuzendariak bideratuko erreklamazioa.**

II.a) **Jakintzagai** baten azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa eginez gero, ikastetxeko zuzendariak erreklamazioaren xede den **jakintzagaiaz arduratzen den saileko buruari** helaraziko dio erreklamazioa. (dokumentua: **LORTUTAKO AZKEN KALIFIKAZIOA BERRIKUSTEKO ZUZENDARIARI ESKAERA eta EBALUAZIO JUNTAREN AKTA**)

Saileko buruak sailaren **ezohiko bilera** deituko du, eta bilera horren **akta** egingo da. Biler horretan, saileko kideek eztabaidatuko dute ebaluazioa eta kalifikazioa aurreikusitakoaren arabera egin diren eta ezarritako ebaluazio-irizpideak zuzen aplikatu diren. (dokumentua: **DEPARTAMENTU DIDAKTIKOAREN TXOSTENA**)

Saileko buruak **txosten arrazoitu bat** igorri beharko dio zuzendariari, **ebazpen-proposamen batekin, erreklamazioak aurkezteko aldia amaitu eta bi lan eguneko epean.**

Kide bakarreko sailen kasuan, bilera jakintzagaiaren irakaslearen eta ikasketaburuaren artean egingo da.

Barne-erreklamazioa zuzendariak ebatziko du, era arrazoituan, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako moduan jakinaraziko zaio erreklamazioari. Jakinarazpen hori lanegun bateko epean egin beharko da, goian aipatutako txostena jasotzen denetik hasita.

Zuzendariak tutoreari igorriko dio erabakia, eta, erreklamazioa baietsiz gero, aktak aldatzeko aginduko du.

Ikastetxeko zuzendariak barne-erreklamazioari buruz emandako ebazpenari kanpo-erreklamazioa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako titularraren aurrean.

Berrikuspena ezin da izan kalifikazio kuantitatibo edo kualitatiboa jartzea bakarrik; aitzitik, ikasleak egindako huts edo okerrak adierazi ere egin behar dira, edo kalifikazioa arrazoitu.

Kalifikazioa mantentzeko edo aldatzeko buruzko erabaki arrazoitua eman beharko da. Ondoren, erabakiaren berri ebaluazio taldeari emango zaio eta Ez-ohiko bilera horren akta beteko da.

II.b) Erreklamazioa, **mailaz ez igotzeko edo titulua ez lortzeko buruzko erabakiarekin lotuta badago.**

Igarotzeko eta/edo titulazioari buruzko erabakiaren aurkako erreklamazioa eginez gero, ikastetxeko zuzendariak **ikaslearen talde ofizialeko tutoreari** helaraziko dio erreklamazioa. Tutoreak irakasle taldearen **ezohiko bilera** egiteko deialdia egingo du, eta bilera horren **akta** egingo da.

Ikasketaburuak ezohiko saio horretan parte hartuko du, hitzarekin, baina botorik gabe, non eta ez den irakasle talde horretako kidea. Irakasle taldeko kidea bada, halakotzat jardungo du.

Azken ebaluazio-saioan bezala, irakasle taldeko irakasle bakoitzak bere iritzia adieraziko du hartu beharreko erabakiari buruz, boto bat emanaz. Horretarako kontuan hartuko da ikaslearen kompetentzia-maila, bai eta, kasua bada, etapako irteera-profila ere.

Tutoreak **txosten arrazoitu bat** igorri beharko dio ikastetxeko zuzendaritzari, **ebazpen-proposamen batekin, erreklamazioak aurkezteko aldia amaitu eta bi lan eguneko epean.** (dokumentua: **MAILAZ EZ IGOTZEARI BURUZKO EDO TITULUA EZ LORTZEARI BURUZKO EBALUAZIO SAIOAREN AKTA**)

2.c) Jakintzagai baten azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa baietsiz gero eta, ondorioz, **igarotzeari eta/edo titulazioari buruzko erabakia** aldatu badaiteke edo aldatu behar bada, ikastetxeko zuzendariak **ikaslearen talde ofizialeko tutoreari** helaraziko dio ebazpena. Tutoreak irakasle taldearen **ezohiko bilera** egiteko deialdia egingo du, eta bilera horren **akta** egingo da. Tutoreak **txosten arrazoitu bat** igorri beharko dio ikastetxeko zuzendaritzari, **ebazpen-proposamen batekin, erreklamazioak aurkezteko aldia amaitu eta 24 orduko epean.** (dokumentua: **MAILAZ EZ IGOTZEARI BURUZKO EDO TITULUA EZ LORTZEARI BURUZKO EBALUAZIO SAIOAREN AKTA**)

Barne-erreklamazioa **zuzendariak ebatziko** du, era arrazoituan, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako moduan **jakinaraziko zaio erreklamatzailerari.** Erreklamazioa baietsiz gero, zuzendariak **dagokion aktak aldatzeko** agindua emango du. (dokumentua: **IRAKASGAI EDO MODULOREN BATEN AZKEN NOTAREN BERRIKUSKETA ESKATU DUENARI ZUZENDARIAREN KOMUNIKAZIOA**)

III.- **Kanpo- erreklamazioa** Hezkuntzako dagokion Lurralde Ordezkaritzan.

Ikastetxeko zuzendaritzak eginiko barne-erreklamazioaren ebazpenari **kanpo- erreklamazio bat** aurkeztu ahal izango zaio **dagokion lurralde-ordezkaritzako titularraren aurrean.**

Barne-erreklamazioaren ebazpenarekin ados egon ezean, ikasleek edo haien legezko ordezkariak ikastetxeko zuzendariaren ebazpenaren aurkako erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, ebazpena jakinarazi eta **bi laneguneko** epean. Horretarako, idatzi arrazoitu bat aurkeztu beharko dute ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari igortzeko.

Ikastetxeko zuzendariak gehienez ere **bi eguneko** epean igorriko dio erreklamazioaren idatzia Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako titularrari. Horrekin batera, erreklamatzailerak aurkeztutako dokumentazioa igorriko dio, baita erreklamazioaren xede den kalifikazioaren oinarri diren ebidentzia guztiak ere. Eta kopia bat igorriko dio Hezkuntzako Ikuskaritzari. Ikastetxean bideratutako erreklamazio-prozesuan sortutako dokumentu guztiak bilduko dira espediente horretan.

Horien artean izango dira, besteak beste, ikastetxearen jarraipenaren bitartez barne-erreklamazioan sortutako dokumentazioa, erreklamazioan sortutako beste edozein gorabehera, erreklamazioaren xede diren jatorrizko ariketak, programazioa jasotzen duen sailaren dokumentazioa, eskatutako gutxieneko kompetentzia-maila, ebaluazio-irizpideak, eta abar.

Lurralde-ordezkaritzako titularrak ebatziko du erreklamazioa, **Hezkuntzako Ikuskaritzak** aldeztu aurretik **txosten arrazoitua** egin ondoren. Txosten hori **zazpi egun naturaleko** epean egin beharko da gehienez ere.

Txosten hori egiteko, Hezkuntzako Ikuskaritzak kontuan izango ditu ikastetxeak sortutako txostena, dena delako arlo edo jakintzagaiaren programazio didaktikoa, ebaluazio-irizpideak, eska daitezkeen gutxieneko kompetentzien garapen-mailak, jendaurrean jarritako kalifikazio-irizpideak, kalifikazioaren oinarri diren ebidentziak, ebaluazio-prozesuan erabilitako tresnak eta prozedurak eta ikaslearen ariketa, lan, proba eta azterketak —eta, hala badagokio, baita beste ikasle batzuenak ere, konparazio bat egin eta ikasle erreklamatzaileraren kalifikazioak modu objektiboan balioztatu ahal izateko. **Aldez aurretik hartutako erabakiren bat aldatu behar bada, irakasle-taldeak ezohiko bilera egingo du.**

Hezkuntzako Ikuskaritzak txostena egiteko laguntza eskatu ahal izango die erreklamazioan aipatzen diren arlo, ikasgai edo esparruetako adituei, eta eskatu ahal izango ditu espedienteak ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak.

Lurralde Ordezkaritzako titularrak erreklamazioa era arrazoituan ebatziko du, gehienez ere hiru eguneko epean, Ikuskaritzaren txostena jasotzen duenetik, eta ebazpena jakinaraziko die, ikastetxeko zuzendaritzaren bidez pertsona interesatuei.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 119.3 artikuluan arabera, kalifikazioak berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea ezin da ebatzi hasieran lortutakoa baino kalifikazio txikiagoarekin.

Hezkuntzako lurralde-ordezkararen ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.

8. eranskina: Promozio eta titulazio irizpideak

243/2022 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituenak.

22. artikulua. Batxilergoko titulua.

1. Batxiler-tituluak etaparako ezarritako helburuak lortu direla eta dagozkion gaitasunak eskuratu direla egiaztatzen du.
2. Batxilergoko titulua lortzeko, ebaluazio positiboa beharko da Batxilergoko bi mailetako jakintzagai guztietan.
3. Salbuespen gisa, irakasgai bat izan ezik, ikasgai guztiak gainditu dituen ikasle batek erabaki ahal izango du batxiler-titulua lortzea, baldin eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:
 - a) Irakasle-taldeak ikasleak titulu horri lotutako helburuak eta gaitasunak lortu dituela pentsatzea.
 - b) Ikaslea ez joatea etengabe eta justifikatu gabe ikasgaian.
 - c) Ikaslea probetara aurkeztu izana eta proba horiek ebaluatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin izana, ezohiko deialdikoak barne.
 - d) etapako ikasgai guztietan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa bostekoa edo gehiagokoa izatea. Kasu horretan, etaparen amaierako kalifikazioa kalkulatzeko, gainditu gabeko gaian lortutako zenbakizko nota hartuko da kontuan.

76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoko curriculumak ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeari buruzkoa.

7. artikulua.– Helburuak.

Batzilergoko helburuak

9. artikulua.– Ikasleek Batxilergoko etapa amaitzerako izan behar duten irteera-profila eta funtsezko konpetentziak.

Batzilergoko irteera profila eta funtsezko konpetentziak

Eskuratu beharreko funtsezko konpetentziak (I ERANSKINA)

31. artikulua.– Batxilergoko titulua.

- 1.– Batxilergoko titulua egiaztatzen du etaparako ezarritako helburuak lortu direla eta dagozkion konpetentziak eskuratu direla.
- 2.– Batxilergoko titulua lortzeko, ebaluazio positiboa izan behar da Batxilergoko bi mailetako ikasgai guztietan.
- 3.– Salbuespen gisa, irakasle-taldeak erabaki dezake ikasgai bat ez beste guztiak gainditu dituen ikasle batek Batxilergoko titulua lortu duela, baldin eta, gainera, honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:
 - a) Irakasle-taldeak uste izatea ikasleak titulu horri lotutako helburuak eta konpetentziak lortu dituela.
 - b) Ikasleak ikasgaian behin eta berriz eta justifikaziorik gabe huts egin ez izana. Hutsegite jarraitu eta justifikaziorik gabeko horren gehieneko iraupena ezin da izan dagozkion ikasgaiaren ordu kopuruaren % 20 baino handiagoa.
 - c) Ikaslea proba guztietara aurkeztu izana eta hura ebaluatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin izana, ezohiko deialdikoak barne.


d) Etapako ikasgai guztietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa bost edo gehiago izatea. Kasu horretan, etaparen amaierako kalifikazioa kalkulatzeko, gainditu gabeko ikasgaian lortutako zenbakizko kalifikazioa hartu behar da kontuan.

4.– Batxilergoko titulua bakarra da, eta egindako modalitatea eta lortutako batez besteko kalifikazioa adierazita ematen da. Horretarako, ikasitako ikasgai guztien kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa kalkulatzeko, ehunenera biribilduta. Kalkulu hori egiteko, ikasgai komunak eta aukerakoak, tituluari dagokion modalitatearen ikasgai espezifikoak eta, hala badagokio, Erljioa ikasgaia kontuan hartu behar dira.



Gidak eta protokoloak

Indarkeria matxistaren aurrean jarduteko jarraibideak *Laburpena*



EMKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA MOTAK:

- **Indarkeria fisikoa.** Emakumearen biziaren/osotasun fisikoaren aurka egiten duen indarkeria, edo xede hori duena: bultzakadak eta kolpeak, gauzak jaurtitzea.
- **Indarkeria psikologikoa.** Min edo sufrimendu psikologikoa edo emozionala sortzen edo sorrarazi nahi duen indarkeria da: duintasuna ukatzea, segurtasun eza eragitea, mendekotasun emozionala sortzea, autoestimua galaraztea, gizartetik bakartzea eta askatasunaz gabetzeko bestelako moduak baliatzea ere, mehatxuak, laidoak eta umiliatze-saioak eginez. Hitzik gabeko jokabide hertsagarriak.
- **Sexu-indarkeria.** Emakumeen gorputza beren borondatearen aurka erabiltzea dakarren indarkeria da. Eraso fisikoa eta laido psikologikoa ere bada, pertsonaren sexu-askatasunaren aurkakoa.
 - Sexu-erasoa. Onespenerik gabeko sexu-harremana da, indarkeria erabiliz edo beldurraraziz egiten dena. Kasurik argiena bortxaketa da.
 - Sexu-abusua. Sexu-izaerako jokabideak egitean datza, baina indarkeria erabili gabe edo emakumea beldurrarazi gabe.

- Sexu-jazarpena. Lan-harremaneko, irakaskuntza-harremaneko edo zerbitzuak emateko esparru batean, norberarentzat edo beste batentzat usu eta modu jarraitu batean sexu-mesedeak egiteko eskatzea da.
- **Ekonomikoa**. Emakume baten eta haren seme-alaben ekonomikoki bere mende dauden ongizate fisiko edo psikologikoa borondatez urratzeko ekintzek osatzen dute indarkeria ekonomikoa. Lotura handiagoa du baliabide ekonomikoak erabiltzeko lehentasunekin, baliabiderik ez izatearekin baino. Lan ordaindua duten emakumeei ere ezartzen zaie kontrol hori.
- **Indarkeria soziala**. Bere senideengandik eta lagunengandik urrunarazten du emakumea, jendaurrean mespretxatzen edo baztertzen du eta abar.
- **Indarkeria sinbolikoa**. Gertatzen da sinesmen eta rol sozial jakin batzuk barneratzen direnean: gizonezkoen gailentasuna erreproduzitzen duten indarkeria motak justifikatzen edo hutsaltzen dituztenak.
- **Ziber-indarkeria**. Teknologiez baliatuta egiten den emakumeenganako delituzko ekintza oro:
 - Sexting-a: Eduki sexualak argazki/bideo formatoan bidaltzen dira baimenik gabe. Argitaratu eta/edo hedatzea delitu bat da, Kode Penal 197. Art.
 - Sextorsioa. Xantaia bidez egiten den sexu-esplotazio modu bat da. Eduki sexualak erabiltzen ditu biktimarengandik zerbait lortzeko (orokorrean sexualitatearekin zerikusia duena), hori argitaratzearekin mehatxu eginez.
 - Porno-mehatxua / revenge porn. Interneten eduki sexuala argitaratzea biktimaren (gehienetan emakumeak) informazio pertsonalarekin batera. Bikote baten harremana hautsi ondoren gertatu ohi da mehatxu gisa.
 - Grooming-a / child-grooming-a. Internet bidez adingabeekin adiskidetasun-loturak ezarri nahian, sexu-gogobetetasuna lortzea adingabeen irudi edo bideo erotiko/pornografikoen bitartez, baita sexu- topaketa baten aurretiazko prestaketa gisa ere.

IKASTETXEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK


Ikastetxeak egin behar duena:

- Susmoaren zantzuei adi egon.
- Tratu txarrak, sexu-jazarpena edo sexu-abusuak jasan dituela kontatzen duen ikasleari begirunez entzun.
- Haur edo nerabearen bat-bateko azalpena erregistratu hitzez hitz.
- Adingabearen intimitatea errespetatu.
- Hezkuntza-esparruko laguntza-talde eta talde teknikoei berehala jakinarazi.
- Kasuaren ezaugarriak zehazteko erabakigarriak datuak eta informazioak erregistratu, modurik objektiboenean eta balio-judiziorik eman gabe.
- Informazioa ahalik eta zuhurtasun eta konfidentzialtasun handienarekin tratatu.
- Familiari jakinarazi, horrek adingabearen integritatea arriskuan jartzen duenean izan ezik. Kasu horietan, gizarte zerbitzuei eman beharko zaie egoeraren berri.

Ikastetxeak egin behar ez duena:

- Ez du entzungor egin eta balio-judiziorik eman behar; ez dio haur edo nerabeari zalantzarik planteatu behar tratu txarren, sexu-jazarpenaren edo sexu-abusuen egiazkotasunari buruz edo gertatu direlako susmoari buruz.
- Ez du inola ere hauraren edo nerabearen gorputza arakatu behar.

- Ez du galdeketa egin behar, langile eskudunek egiten baitute hori berriz ere biktimizazioan erortzea errazten ez duten babes-baldintza egokietan. Eskolak ez du tratu txarren eta sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuaren diagnostikorik egiten, ezta baieztatu ere; aitzitik, eskolak susmoa jakinarazten du



[Infograma interaktiboa pantaila handian ikusi](#)



Hezkuntzan lanean jazarpen sexista edota morala gertatzen den kasuetan prebentzio neurriak eta jarduteko prozedura [2011]

Laburpena

Administrazio honen helburu bat da **langileen lan-baldintzak** hobetzea eta **osasuna** lan-arriskuekiko babestea. **2011ko ekainaren 20ko Agindua** garrantzi berezia ematen dio nagusi eta kideengandik tratatu duin, errespetuzko eta berdintasunezkoa jasotzeko eskubideari, eta neurriak ezartzen ditu arrisku ohikoenei aurrea hartzeko. Oso garrantzitsua da egoera identifikatzen jakitea, egokiro jokatzeko.

Arrisku horiek identifikatzeko aukera emango du, eta laguntza emango du lanean gatazka egoera baten edota desadostasun pertsonalen edo profesionalen erruz sortutako istilu puntual edo igarokor bat izatean.

Prozeduran zehaztuko da, alde batetik, **bitartekaritza** deituriko alde aurreko fasea, eta bere helburua da langileen arteko gatazkak edo azkar eta eraginkortasunez konpontzea, larriagotu eta iraunkortu ez dadin.

Gatazkak askotarikoak izan daitezke, eta, kasu gehienetan, azpian izaten dute:

- Nortasunen arteko talkak.
- Kooperazio eza.
- Autoritate- edo botere-esparruen arteko arazoak.
- Lan-frustrazioak.
- Lanarekiko inplikazio-maila desberdinak.
- Konparazio bidezko irainak.

GATAZKA DISFUNZIONALAK EDO SUNTSITZAILEAK:

- Energia pertsonal ugari kontsumitzen dute.
- Lan-taldeko kohesioa hondatzen dute.
- Pertsonen arteko liskarrak sustatzen dituzte.
- Lanerako giro negatiboa sortzen dute.
- Gogo eza, gutxiespena eta segurtasun eza eragiten dute.
- Somatizatzea ere gerta daiteke, eta osasun-arazoak eragitea

GATAZKA BAT EBATZI:

NORBERAREN BALIABIDEEKIN:

1. Entzute aktiboa, modu neutro batean behatu
2. Pertsona horrekiko nire jarrera analizatzea
3. Gatazka konpontzearen abantailei buruz hausnartzea
4. Gure haserrea modu asertibo, argi, sendo eta zuzenean adieraztea
5. Akordioa ahalbide tzen duen erlazio mota berria aurkitzea

BITARTEKARITZA AURRELANA / BITARTEKARITZA:

	BITARTEKARITZA-AURRELANA	BITARTEKARITZA
3. PARTAIDEA PROZESUAN	AURRE-BITARTEKARIAREN figura ezartzen da, eta gatazkaren alderdiek adostutako edozein pertsona izan daiteke	BITARTEKARIAREN figura ezartzen da, eta Hezkuntza Ikuskariaren taldeko kide bat izango da, hori arautzen duen Aginduan jasotzen denaren arabera
2011KO EKAINAREN 20KO AGINDUAK ARAUTUA	Bitartekaritza-aurrelana jardun informala da. Ez dago arauaren mende	Bitartekaritza-prozedura guztia aipaturiko Aginduak arautzen du
IDATZIZKO ESKARIA	Ez da behar	Hori arautzen duen aginduan ezarritakoaren arabera bideratuko da, eta eredua eskuragari dago www.hezkuntza.net orrian
ALDERDIEK ADOSTUTAKO AKORDIOAK	Ez dira idatziz erregistratzen	Adostutako akordioak idatziz jasoko ditu bitartekariak, eta alderdiek izenpetu eta onartu beharko dituzte
EPEAK	Ez daude ezarrita	10 egun - Bitartekaritza-bilera 15 egun - Idatziz erregistratu adostutako Akordioak 5 egun - Adostutako akordioak izenpetzea
ADOSTUTAKO NEURRIAK HARTZEA ETA ZAINTZA	Bi alderdi kaltetuak izango dira ezarritako akordioen jarraipena egingo dutenak	Bitartekaritza-prozeduraren arduraduna izango da bitartekaritza-dokumentuan adostutako akordioak hartzearen eta zaintzearen bermatzaile

GATAZKA BAT EBATZI	BITARTEKARITZA-AURRELANA	BITARTEKARITZA
Noiz?	Arazoa modu adiskidetsuan konpontzeko gogoia eta indarra badutenean.	Bitartekaritza aurrekoaren bidez ebazteko nahikoa izan ez denean.
Nor izan daiteke aurre-bitartekari?	Gatazkan murgilduta dauden alderdiek onartutako edozein kide	Prestakuntza eta esperientzia espezifikoa dute
Bitartekaritzak o aurrelanaren prozedura	.Alderdi kaltetuek adostu beharko dute nork lagun diezaiekeen. .Aukeratutako pertsonari laguntza eskatu beharko diote, eta bitartekaritza aurreko bileraren data adostu. .Prozedura ez da idatziz jaso behar.	Aurkeztutako idatziak hasiera emango dio. Idatzian jasotako dira gertaerak edota portaerak. Azken hamabi hilabetetan, gutxienez. Zuzendariari aurkeztuko zaio, edota, berarekin izan bada, Hezkuntza Sailaren Lurralde Ordezkarari. Eskariaz gain, bitartekaritza-prozedurak dokumentu-erregistroa eskatzen du.

JAZARPEN KASUETAN JARDUTEKO PROZEDURA

“Lan-harremanen testuinguruan, pertsona batek edo gehiagok behin eta berriz eta denbora luzez indarkeria psikologikoa jasatea beste batengandik edo batzuegandik eta botere-posizio batetik (ez derrigorrez hierarkiakoa).”

Jazarpen sexista batean pertsonaren sexua da erasorako arrazoi. Jokabide hori sexuala bada, jazarpen sexuala izango da.

EZAUGARRIAK	PROZESU GOGOR BAT JASATEN DU	ZER BABESTEN DA?	ONDORIOAK LAN ESPARRUAN	ONDORIOAK GIZARTE ESPARRUAN
• Pertsonetikiko jokaera zakarra • Tematia errepikakorra. • Efektu negatiboak sortu • Pertsona batek edo gehiagok sortua, beste batekiko	1. Gatazka 2. Estigmatizazio 3. Marjinazioa 4. Kr oniko bihurtzea	• Lan duina. • Askatasuna. • Intimitatea. • Berdintasuna. • Ekitatea. • Ohorea. • Osasun mentala • Lan-giro ona. • Harmonia bizikidetzan.	• Produktibitatea gutxitu • Isolamendua / marjinazioa • Absentismoa • Motibazio falta • Lanean blokeo • Errua • Sakabanatzea • Adierazteko lotsa	• Neke emozionala • Antsietatea • Kontzentrazio falta • Insomnioa • Isolamendua • Gatazka harremanetan • Komunikatzeko zailtasuna

Bitartekaritza huts egingo balu, **salaketara** jo behar da eta **lkerketa fasea** garatuko da. Ikerketaren ondoren, beharrezko neurriak hartuko dira, beldurtzeko helburua duten jokabideei amaiera emateko eta biktimen eskubideak eta osasuna babesteko. Jazarpen-salaketa bat denean, lkerketa Batzorde bat eratuko da.

Batzordearen jarduna:

1. **Ikerketa itxi**, gertakariak laneko jazarpen moral edo sexistatzat hartzen ez baditu. Ahobatezko erabakia izango da; idatziz jasoko da, eta alderdiei jakinaraziko zaie.
2. **Bilera** bat egingo du alderdiekin, batera edo bai bakarka; prebentzio- edo sindikatu-ordezkaria edo beharrezkotzat jotzen duten beste edonor. Gertakariarekin erlazio zuzena duten pertsonen ere deitu ahal izango zaie. Kasu horretan, alderdiei adieraziko zaie.
3. **Ebazpena**. Ikerketa amaitu eta hilabetera, ondorioztatuko du jazarpenik izan den ala ez, eta hori txosten batean jasoko du. Ondorioak Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordeari jakinaraziko dizkio. Azken honek ebazpen bat emango du, eta hor proposatuko ditu neurri zuzentzaileak. Zehapen-espeditente bat irekitzeko eska dezake Batzordeak, falta oso larria, larria edo arina egin izanagatik.
4. **Ikuskapena**. Prebentzio Zerbitzuak egingo du. Hezkuntza Administrazioak gertakariak delitutzat hartzen baditu, Fiskaltzari jakinaraziko dizkio.

IKASTETXEETAKO ZUZENDARIEN ERANTZUKIZUNA

- a. Bitartekaritzarako eskaera-idatzi ofiziala berari zuzenduko zaio, eta berak izango du Lurralde Ordezkarari bitartekari baten esku-hartzea eskatzeko ardura.
- b. Gatazkaren alderdiei jakinaraziko die prozedura noiz hasiko den; bileretan borondatez parte hartzeko eskatuko die, eta ekintzen erregistroa gordeko du.
- c. Bitartekaritza-dokumentuan adostutako akordioak hartzearen eta zaintzearen bermatzaile izango da, eta Prebentzio Zerbitzua jakinaren gainean eduki beharko du, azken honek bere aginpide-esparruan jardun dezan.
- d. Bitartekariari beharrezko babesa emango diete beren egitekoa bete dezaten.



Gidak eta protokoloak

Hezkuntzan lanean jazarpen sexista edota morala gertatzen den kasuetan prebentzio neurriak eta jarduteko prozedura [2011]

Laburpena

Emakumeen genitalen mutilazioari aurrea hartzea, hezkuntza-esparruan (EMAKUNDE eta Hezkuntza Saila). EGM

ZER DA? "Emakumeen organo genitaletan asaldurak edo lesioak eragiten dituzten prozedura guztiak, nahita eginak eta medikoak ez diren arrazoiengatik". **Osasunaren Mundu Erakundea.**

Jarduera tradizional kaltegarri bat da, antzinako erro soziokultural sendoak dituen. **Ez da erlijioan oinarritzen**. Giza eskubideen urraketa bat da, bai eta neskak eta emakumeak menderatzeko eta bortizki tratatzeko modu bat ere.

Ondorio fisiko eta psikologikoak ditu; neskak markatuta uzten baititu, betirako.

Kasu askotan, **igarotze-erritua da**, estatusa ematen duena, bai eta identitate etnikoa eta genero-identitatea ere. Haren bidez, gizartearen aitortza eta talde baten partaide izatea ere bilatzen da. Egiten duten taldeek belaunaldiz belaunaldi errepikatzen dute, eta arrazoi desberdinak ematen dituzte justifikatzeko: edertasuna, purutasuna, erreprodukzioa, kontrol sexuala, kohesio soziala, nesken eta emakumeen osasuna zaintzea eta umeak hilda jaiotzea saihestea, eta abar...

Presio kulturala eta egitura soziala direla-eta, familientzat ez da batere erraza praktika hori baztertzea, eta emakumeentzat banan-banan ere ez.

NON EGITEN DA? Migrazio-mugimenduak direla-eta, EGM sakabanatu da eta globala da. Batez ere **Afrikako Saharaz Hegoaldeko 28 herrialde**tan egiten dute, bai eta **Erdialdeko Ekialdeko** eta **Asiako** zenbait tokitan ere (Yemen, Oman, Irakeko Iparralde, Indiako, Malasia eta Indonesiako zenbait erregiotan, besteak beste). *(MAPA DAGO) WASSU-UAB EMG sufritu duten 15-49 urte bitarteko emakume...

Neska zein **etnia-taldea**koa den inportanteagoa da haren jatorrizko herrialdea baino. Batez ere **aitaren** etnia-taldea da inportantea: Sarahule, Djola, Mandinga, Fulbé, Soninke, Bambara, Dogon, Edos, Awusa, Fante. Dena den, hau orientagarria baino ez da.

ZER ERANTZUN DAUKAT PROFESIONAL BEZALA?

3.1. Neskak **babestu behar** ditut, haien **eskubideak bermatuz**, eta **arau hauek betez**: Istanbulgo Hitzarmena 2011koa, 4/2005 Legea, 3/2005 Legea eta 230/2011 DEKRETUA.

Genitalen mutilazioa edo hura egiteko asmoa adieraztea delitua da, Espainiako Estatutik kanpo eginda ere (Zigor Kodearen 149.2. artikulua, 3/05 LO eta 1/2014 LO).

3.2. **Prebentzioa** da helburua.

3.3. Diziplinar tekotasuna, **koordinazioa** eta lana sarean.

3.4. Prestakuntza eman, sentikortu eta **ezagutza sortu**.

3.5. **Familiekin lan** egin, estigmatizatzea saihestuz. Komunitate-lana egin eta kulturen arteko lana egin.

3.6. **Neskak ahaldundu**, estrategia gisa eta gaia prebenitzeko esku hartzearen helburu gisa.

IKASTETXEAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Hiru kasu:

1. OHIKO PROZEDURA: matrikulazioan harrera-prozesuetan, arreta berezia emango zaie neskatilei, baldin eta EGMaren prebalentzia handia duten **herrialdeetatik** etorriak badira.

- Ziurtatu ikastetxean badagoela praktika horri buruzko informazioa eta prestakuntza duen norbait.

- Ez badago inor, Zuzendaritzak Berritzegunera joko du, informazioa lortzeko.

- Tutoreak informazio esanguratsua jasoko du informazio konfiantza sortu ahala.

- Familia genitalen mutilazioa EMG praktikatzeko duen etnia batekoa izanez gero, edo beste arrisku-faktore batzuk antzemanen gero, neskaren osasuna aitzakiatzat hartuta, orientazioa emango zaio familiari,

osasun-zerbitzuetara jo dezan. Familiari jakinaraziko zaio, orobat, ikastetxeak ere osasun-zerbitzuetara joko duela.

- Hiru kasuetan, tutoreak edo Zuzendaritza Taldeak informazioa emango die familiei, udaletan eta foru aldundian emakume-arloari zuzendutako zerbitzuei buruz.

2. Neskak bidaiatu aurretik: jatorrizko herrira joango direla oporretara, familiak edo neskak azaldutako zerbait, neskak ongietorri festa egingo diotela aipatzen badu... tutoreak horren berri emango dio ikastetxeko Zuzendaritza Taldeari, eta hark, aldi berean, informazioa emango dio Pediatria Taldeari, harekin koordinatuta jarduteko. Hala honela jokatu du zuzendaritzak:

- Jakinaraziko dio familiari Osasun Zentrora jo behar duela (Pediatria zerbitzura), txertoez eta bestelako osasun-zainketez orientazioa eman diezaioten. Informazioa emango dio pediatriari familiak egin behar duen bidaiaz.

3. Neskak bidaiatu ondoren: desberdin jokatzen badu (triste agertzen bada, edo isolatuta...), arreta handiz behatu eta harekin hitz egin. Susmatzen badugu arrisku- egoeraren bat egon daitekeen, familiarengana jo beharko da, bai eta:

- Ikastetxeko Zuzendaritzak Osasun Zentroko Pediatria Taldera joko du, neskaren egoera jakinarazteko, eta familiari horren berri emango dio.
- Zuzendaritzak jakinaraziko die udaleko gizarte-zerbitzuei zer gertatu den, egoera baloratzea eta haren segimendua egitea izan dezaten, beste erakunde eta zerbitzu batzuekin koordinatuta.




Eskola-jazarpen egoeretan jarduteko protokoloa «bizikasi» [2019]

Laburpena

Eskola-jazarpena ikasleen eskubideak erasotzen dituen jokabidea da. Ez da unean uneko arazo isolatua, egiturazko erro sakonak ditu eta, ondorioz, harekiko konponbideak eskola-komunitate osoaren ahalegina eta ardura hartzea eskatuko du. Horretarako, ekintzak zentzuz garatu behar dituzte.

Eskola-jazarpen egoeren kudeaketa errazteko asmoz, 2004/2005 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza Sailak ikastetxeen esku jarri du **EAEko ikastetxeetan eskola- jazarpen kasuetan jarduteko Gida**. Bertan dago ezarrita jarraitu beharreko protokoloa eta eman beharreko urratsak; ahalik eta azkarren, eraginkorren eta seguruaren jardutea da helburua.

[eskola-jazarpenak \(berrigasteiz.com\)](http://eskola-jazarpenak(berrigasteiz.com))



[Infograma interaktiboa ikusi](#)

Eranskinak betetzeko orientabideak:

[20191011_eskola_jazarpena_0-I-II-III_eranskinak_osatzeko_orientabideak_e.pdf \(berrigasteiz.com\)](#)

Hezkuntza Sailak **Bizikasi** ekimena jarri zuen martxan 2017-2018 ikasturtean. Bizikidetza positiboa garatzeko eta jazarpena errotik ezabatzeko abiarazi dituzten jarduketa eta programa espezifikoetako asko integratzen ditu. [Hasiera - Bizikasi \(euskadi.eus\)](#)

Ikasleen eskubide eta betebeharrak: (Neurri hezigarriak)

[Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretua aplikatzeko gida \(euskadi.eus\)](#)



Ziberjazarpen kasuen aurrean ikastetxeetan jarduteko orientabideak [2020]

Laburpena

ZEIN DIRA ZIBERJAZARPENAREN EZAUGARRI BEREIZGARRIAK?

Bullyingaren modalitate espezifiko bat da, ingurune birtualari dagozkion ñabardurak dituenak. Bi modu izan daitezkeela:

Bullying-egoera sortuta dago jada, eta hori berresten jarduten dute.

Aurrekaririk gabekoa; mezu jazarleak, mehatxuak... jaso baliabide teknikoen bide. Batzuetan, erasotzaileek aurrez aurreko ekintzak egin.

-**Azkarra, leherkorra** eta **kontrolrik gabekoa** da, eta egiteko askoz errazagoa.

-Eraso bakar batekin kalte handia egin daiteke, alegia, biktimizazioa sor daiteke.

-Intentzionalitate barik eginda ere **ondorio larriak** izan daitezke.

- Jazarpena **nonahi** eta **noiznahi** egiteko aukera .

-**Entzuleria zabala** izan daiteke eta kaltea esponentzialki biderkatu

-**Babesgabetasun** sententzioa bullyingean baino handiagoa da.

-**Espozizio maila** garrantzi berezia hartzen du "iritzi publikoak". Lotsaren sentimendua askoz ere handiagoa da.

-**Bertan geratzen** da ezabatzen ez bada, eta horrek jazarpena "sine die".

-**Baliabide** teknologiko **anitzak** izan daitezke, nahiz eta modalitate bera.

-**Geldiaraztea oso zaila** da erasoak behin sarera iristen direnean.

-Jazarleen **anonimotasunak** biktimizazio sentimendua larriagotzen du eta erasotzailearen zigorgabetasun sententzioa areagotzen du. Desinhibitze-efektuak jokabide jazarlea sustatzen du.

-**Ondorioak** ezin dira aurreikusi. Edukiak bizitza propioa hartzen dute..


-**Ikerketak mugatuagoak** dira. Ikastetxeek ez dute gaitasun juridikorik ikasleen arteko komunikazioetan esku hartzeko, baldin eta ikastetxean bertan edo ikastetxeko baliabide teknologikoekin egin ez badira.(Ertzaintzak/Udaltzaingoak).

-Eskolaren eta familiaren arteko **lankidetzak** funtsezkoa da.

-**Legezko erantzukizunak** Jazarpenean baino handiagoak eta larriagoak dira.

ZEIN DIRA ZIBERJAZARPENAREN JOKABIDERIK OHIKOENAK?

ZIBERJAZARPENA: ESKU HARTZEKO ORIENTABIDEAK



- **Probentzioa:** bizikidetza positiboa eraikitzea sustatzen duten antolaketa neurriak, hautu metodologikoak eta curriculum jarduerak.

Ziberjokabidea. Online jarduteko arauak:

- ✓ Sare sozialetan harremanak ondo kudeatzea garrantzitsua da.
- ✓ Sare sozialetan jardunbide egokien kodeak hartzea garrantzitsua da.
- ✓ Interakzio birtualeko prozesuan jarduteko prozedura ezarri behar da.
- ✓ Zibersegurtasunari laguntzeko neurri teknikoak ezarri behar dira.
- ✓ Parte hartzeko jarraibideak eta moduak ezarri behar dira. (Netiketa...)
- ✓ Konpromiso indibidualak eta kolektiboak eskuratuko dira.
- ✓ Ikasitakoak, konpromisoak, aldaketak eta sortutako erreakzioak baloratuko dira
- **Lehen mailako esku-hartzea:** neurri espezifikoak aplikatzea ziberjazarpen- egoera hasiberriak detektatzen direnean.
- **Bigarren mailako esku-hartzea:** inpaktua minimizatzea eta biktimak babestea, jazarpen-dinamika etetea, jokabide erasotzailea duten ikasleak kontrolatzea eta neurri berrezartzaileak aplikatzea.

Berehalako jarduketak:

-Ahalik eta azkarren

-Ebidentziak biltzea

-Jazarpenaren Protokoloa: eskola-inguruan edo ikastetxeko-inguruan baliabide teknologikoekin gertatzen bada.

Eta beharbada, 201/2008 Dekretuko Jokabidea zuzentzeko prozedurak

-Salaketa Ertzaintzaren edo Epaitegi-Fiskaltzaren aurrean

-Jazarpena pairatzen duten ikasleekin eta haien familiekin harremanetan jartzea

-Ustez jokabide erasotzaileak dituzten ikasleekin eta haien familiekin harremanetan jartzea

NOLA JOKATU BEHAR DUTE IKASTETXEEK

Jazarpena jasan duten ikasleei:

- Gertutasun emozionala eta enpatikoa erakustea.
- Erruduntasun-sentimendua saihestea.
- Konfiantza erakustea.
- Eman diren erantzunak eta beste aukera batzuk aztertzea.
- Aurre egiten trebatzea.
- Erabakiak martxan eta praktikan jartzea.

ikasle-ikusleekin lan egitea

FAMILIENTZAKO GOMENDIOAK

Ikasle batek ziberjazarpena jasaten duenean, familiak edo gertuko pertsonak **interesa agertu** beharko liokete pairatzen ari den egoeraz, bere emozioez eta sentimenduez; hori egitea garrantzitsua da.

Laguntzeko jarrera azaltzea lehen mugarrria izan daiteke egoera horretatik ateratzen hasteko, familiak ematen dion **konfiantzari** esker tentsio emozionala deskargatu ahal izango baitu.

ZER LEGE-ONDORIO IZAN DITZAKE ZIBERJAZARPENAK?

Estatuko fiskal nagusiaren **10/2005** Instrukzioak honako hau adierazten du: (...) eskola-jazarpenaren kontzeptua metajuridikoa da, eta esangura juridiko-penal desberdinak izan ditzake, falta hutsetik hasi eta delitu astunean amaitu arte.

Kasu guztietan, honako alderdi hauek izan behar dira kontuan:

- a. Arau horiek ez ezagutzeak ez du salbuesten egintzen **erantzukizuna**.
- b. Erantzukizun penala jokabidearen larritasunaren eta jokabide hori gauzatu duenaren jarreraren araberakoa izango da. **Erantzukizun zibila** ere izan daiteke
- c. **14 urtetik beherakoei** ezin zaie erantzukizun penalik exijitu, Kode Zibileko adingabeen babesari buruzko arauetan xedatutakoa aplikatuko zaie. Normalean, zehapen ekonomikoak ezarriko zaizkie gurasoei edo tutoreei.
- d. **14 eta 18 urte bitartean** dutenei erantzukizun penala ezarriko zaie. Epaituko dira urtarrilaren 12ko **5/2000 Lege** Organikoaren ondoriozko aginduen arabera



Gidak eta protokoloak

Hezkuntza arloko prebentzio- eta jardun- protokoloa gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu- jazarpen eta sexu-abusu egoeretarako [2016]

Laburpena



3. Hezkuntza-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, Ertzaintza, Fiskaltza, osasun- zerbitzuak...

